

Saharako kanpamenduetako gazte errefuxiatuak

Linboaren
ziurgabetasunean
harrapatuak

Carlos Vilches Plaza
Natxo Esparza Fernández

Saharako kanpamenduetako gazte errefuxiatuak

Linboaren ziurgabetasunean harrapatuak

Carlos Vilches Plaza
Natxo Esparza Fernández

Saharako kanpamenduetako gazte errefuxiatuak

Linboaren ziurgabetasunean harrapatuak



Izenburua: *Saharako kanpamenduetako gazte errefuxiatuak.*
Linboaren ziurgabetasunean harrapatuak

Egileak: Carlos Vilches Plaza / Natxo Esparza Fernández

Argitaratzaileak: Arabako SEADen Lagunen Elkartea

Edizio lanak eta
euskarazko itzulpena: Nafarroako Unibertsitate Publikoa

Azalaren diseinua: Luis Jover Comas

Konposizioa: Pretexto

Inprimaketa: Arabako Foru Aldundia

ISBN: 978-84-697-7119-8

LG: AL 000-2017

© Arabako SEADen Lagunen Elkartea

© Egileena, beren testuena

© Argazkiena: Natxo Esparza

Banaketa: Arabako SEADen Lagunen Elkartea /
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava
Antonio de Sucre 1, bajo
01003 Vitoria – Gasteiz
administrazio@saharaelkartea.org
www.saharaelkartea.org



Licencia Creative Commons

<https://creativecommons.org/licenses/by/4.0/>

Tenía la idea de que al poner nombre a los problemas, estos se materializan y ya no es posible ignorarlos; en cambio, si se mantienen en el **limbo** de las palabras no dichas, pueden desaparecer solos, con el transcurso del tiempo.

Isabel Allende,
La casa de los espíritus
(1982)

Aurkibidea

- 11 Esker onak
- 13 Aurkezpena
Testuingurua

-
- 19 **Saharar gazteak**
 - 19 Landa ikerketa

-
- 25 **Tradizioa modernitatean**
 - 25 Kultura bat trantsizioan
 - 31 Eszena eta bere bilbe soziala
 - 35 Erlijioaren bizipena
 - 37 Familia eta ezkontza
 - 39 Enplegua bizitzaren ardatz gisa
 - 43 Buru osasuna estigma gisa
 - 47 **Gazteek esaten dutena**
 - 47 Pasio eutsia

- 53 Deserrotze jasanezina
- 58 Utzikeria hezkuntzan
- 60 Bizitza pasatzen ikustea
- 64 Maitasuna bigarren mailan
- 66 Eskua gantzarik gabe. Berdintasunari buruzko solasa
- 69 Osasuna eta emakumeen estereotipoak
- 71 Aisiarik eta negoziarik gabe

75 **Gazteak zifratan**

- 75 Ezaugarri demografiko nagusiak
- 77 Bizi-proiektua
- 78 Erljioaren bizipena
- 81 Irudi pertsonala *versus* osasuna
- 83 Aisialdia
- 85 Generoa eta nortasuna

89 **Ondorio gisa**

- 91 Parte hartzeko lehentasunezko mailak

Esker onak

Lehenik eta behin, Mina Sidi, Hareira Mohamed, Bachir Mahyub eta Mohamed Sidi Abbasi egindako lana aitortu nahi diegu, haien parte-hartzerik gabe ezin izango baitzen azterketa hau burutu.

Halaber, eskerrak eman nahi dizkiegu Zein Sidahmedi, eta SUIGB elkarteak wilayetan duen egitura guztia osatzen dutenei, eman diguten laguntzagatik eta ikerketa hau babesteagatik, zailtasunez beteriko tes-tuinguru batean. Eskerrik asko osatzen duten pertsona guztiei, egiten duten horretan sinesmen osoa duten gizon-emakume gazteei, beren mobilizazio gaitasunagatik.

SUIIB elkarteari, Gazteria eta Kirol Ministerioari eta Lanbide Hezike-tako Ministerioari, zeinak prozesuaren giltzarriak baitira, beren espe-rientzia eta laguntza gure esku jartzeagatik.

Lankidetzeta Ministerioari, UNMS eta AFAPREDESA elkarreei, Gritos contra el Muro Marroquí Plataformari, Bulahi Said Mati adingabeen zentroari, buru osasuneko profesionalei, agintari erlijiosoei, Ihesla-rientzako Nazio Batuen Goi Mandatariari (ACNUR), Informazio Mi-nisterioari eta Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoko Telebis-

tari (RASD-TV). Eskerrik asko erakunde horiei guztiei eta kideei beren ikuspegia emateagatik.

Prestakuntza-guneei, hala nola Gazuani, 12 de Octubre, Olof Palme, 9 de Junio, Kultura Ministerioaren Zine, Musika eta Arte Eskolak, eta Dajlako Emakume Eskola. Haietan ikasten duten ikasleei, beren denbora guri eskaintzeagatik gure galderei adeitasunez erantzunez.

Sidahmed Mahmud, Bechari Lamam, Jatri Nafa eta Mohamed Bujariri, gu alde batetik bestera garraiatzeagatik orduari eta uneari erreparatu gabe. Eta Guega Abdelhay, Fatma Larbi, Fatimetu Brahim Salem, Suadu Mohamed Daf, Mariam Nayem Haimudi eta Chibla Omarren familiei, gu beren seme-alabak izango bagina bezala hartzeagatik.

Azkenik, gure esker onena bihotzetik ikerketa honetan lagundu dituguten pertsona guztiei. Guztien ahotsak jasotzen ahalegindu gara ikerketa honetan, haiekin burutu ditugun ekintzetan ikerketa sozialeko teknika eta praktiken bidez.

Aurkezpena

Testuingurua

Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Arabako Lagunen Elkarrekin saharar herriari laguntzen dio 80. urteez geroztik, garapenerako lankidetzako proiektuen bidez Tindufeko errefuxiatuak kanpamenduetan. Halaber kontzientzia sortu nahi du gure ingurunean herri horretan duela berrogei urte baino gehiago dagoen gatazkari eta bere ondorioei buruz. Horretarako sentsibilizazio jarduera ugari egiten ditu, eta jarduera horien artean daude lurralde okupatuetan giza eskubideen egoerari buruzko zenbait salaketa eta ikerketa ekimen.

Azken urteetan, kanpamenduetako gazteak bihurtu dira elkarrekin jarduera ildoetako baten protagonista, Saguia el-Hamra eta Urrezko Ibaiko Gazterien Batasuna (SUIGB) sendotzeko prozesuari emandako laguntzaren bidez. Lan horren emaitza gisa, politiken arloan plangintza estrategiko bat diseinatzeko beharra ezagutu da, aukerarik ezak bereziki kaltetzen duen talde batentzat, hots, gazteentzat. Izan ere, iheslekuko bizimoduak eta kanpoko laguntzarekiko mendekotasunak eragotzi egiten diete gazteei lanbide eta bizi proiektu bat eraikitzea. Lan edo lanbide aukerarik gabe, aisialdia gehiegizkoa bihurtzen da, eta

horrek gogo aldartea hondatzen duen frustrazioa sortzen du. Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Gobernuarentzat kezka bide gero eta handiagoa da hori.

Testuinguru horretan, prozesu bati ekitea pentsatu dugu, saharar gazteek beraiek hitza har dezaten eta beren mundu ikuskera, ametsak eta itxaropenak adieraz ditzaten. Hortik sortu da lan hau; lehen urrats bat da, eta arrastoak jarriko ditu kanpamenduetan gazteen arloan jarduerak birdefinitzeko. Carlos Vilches irakasleak eta bere taldeak, Nafarroako Unibertsitate Publikokoak, egin dute ikerketa, eta analisi kuantitatibo eta kuantitatibo bat eskaintzen du, kanpamenduetako saharar gazte errefuxiatuei dagozkien zenbait alderdirenak, beren pertzepzioetik eta esperientziatik abiatuz. Arabako Foru Aldundiak eman du diru laguntza ikerketa egiteko.

Duela 40 urte baino gehiago, saharar gazteen talde batek herrien askatasunaren eta duintasunaren banderaren inguruan bildu zuen saharar gizarte osoa kolonialismoaren eta bazterketaren aurka. Fronte Polisarioaren sorrerak¹ benetako iraultza ekarri zuen Mendebaldeko Saharara: lehenbiziko aldia zen Afrikaren esplotazioan Frantzia, Ingalaterra eta Portugalekin lehitzeko, 1884. urtean alde-aldera Espainia basamortuko zerrenda hau okupatzen ahalegindu zenetik, ez zela hitz egiten tribu edo nomada talde gutxi-gehiago azpigaratuez, baizik eta herri batez, saharar herriaz. El Uali Mustafa Sayed *Lualiaren* belaualdiak beren nagusien onarpena lortu zuen, eta adin guztietako gizon-emakumeen atxikipena eta nazioarteko komunitatearen oniritzia,

.....

¹ Espainiar gobernuaren immobilismoaren aurrean eta urte batzuk lehenago Mohamed Bachir Sidi Brahimi *Basiri* izenekoaren Sahararen Askapenerako Abangoardia Erakundeak abiarazi zituen negoziazio bideek porrot egin ondoren, El Uali Mustafa Sayed, *Lulei*, buru zuen gazte talde batek Saguia el-Hamra eta Urrezko Ibaiaren Askapenerako Herri Frontea sortzea erabaki zuen, eta bere lehen biltzarra Nuakchoten (Mauritania) egin zen 1973ko maiatzaren 10ean. Bahim Ghali aukeratu zuten idazkari nagusi biltzarrean. Fronte Polisarioak bide guztiak, borroka armatua barne, bidezkoak zirela uste zuen Mendebaldeko Sahararen autodeterminazio eskubidea lortzeko.


behartzeko espainiar okupazioa buka zedin, eta autodeterminazio erreferendum bat egin zezaten beren etorkizuna askatasunez erabakitzeko. Zoritxarrez, Mendebaldeak eremu horretan zeuzkan interes politiko eta ekonomikoengatik, Estatu Batuen eta Frantziaren interesak hain zuzen ere, eta artean zegoen giroagatik, gerra hotzarekin eta Espainia eta Portugalako trantsizio politikoaren beldurrarekin, ez zen gauzatu Espainiak eta NBEk agindutako erreferendumaren proiektua, eta, horren ordean, beste okupazio bat izan zen: Maroko eta Mauritaniarena aldi hartan. Hori lortzeko erabili zituzten tresna makurrek, hots, Mar-txa Berdeak eta 1975eko azaroko Madrilgo Hiruko Hitzarmenek, inoiz ez dute lortu nazioarteko erakundearen legezko adostasuna eta onarpen legitimoa, baina praktikan Espainia, Frantzia eta Estatu Batuek tresna horiek darabiltzate saharar auziari heltzeko.

Marokok eta Mauritaniak burututako bortxazko okupazioak gerra sorrarazi zuen eta populazio zibila basamortuan barna ihes egitera behartu zuen, non populazioaren aurkako eraso bortitzak ez baitziren eten, Tinduf inguruan kokatu zen arte, egundaino iraun duten kanpamenduetan. Enfrentamenduak ez zuen eragotzi, haatik, Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoa aldarrikatzea 1976ko otsailaren 27an.

Marokoren eta Fronte Polisarioaren arteko gatazka irekiak 1991ra arte iraun zuen. Urte horretan, Nazio Batuek eskatuta, su etena onartu eta bake hitzarmen bat sinatu zen. Hitzarmenak ezartzen zuen autodeterminazio erreferendum bat antolatu eta NBERen misio bat hedatuko zela erreferenduma prestatzeko, eta hura nola egiten zen ikuskatzeko. Nolanahi ere, Marokok egindako nazioarteko presioa dela-eta egundaino ezin izan da egin erreferenduma.

Egun saharar herria banatuta dago zenbait tokitan: errefuxiatuen kanpamenduetan, lurralde okupatuetan, non etengabeko errepresioa jasaten duen gutxiengoa baita saharar populazioa, eta erbestean, beste herrialde batzuetan, batez ere Mauritania eta Espainian. Bestalde, artzaintzan aritzen diren nomada talde batzuk eremu askatuan bizi

Mendebaldeko Saharako lurraldea



dira, 2 500 km luze den eta ingurua minaz josia daukan harresi batek bereizten duen eremuan, Hassan II.aren aginduz eraiki zutena Polisarioaren sarraldiak eta errefuxiatuak lurraldera itzultzea eragozteko.

Zailtasunak gorabehera, motibazio handiak eta kanpamenduen gizarte antolaketa onak ahalbidetu dute halako garapen-maila bat lortzea, kasu askotan inguruneko herrialde independenteen garapenaren parekoa. Hala, biztanle guztiek bermatuta daukate ura eta oinarri-zko elikagaiak izateko modua, bai eta lehen mailako laguntza medikoa eta haur guztientzako hezkuntza ere. Komunikabide berekiak ere badituzte, hala nola Saharar Irrati Nazionala edo Telebista Nazionala (RASDTV). Bestalde, badaude masa-erakunde oso aktibo batzuk, hala nola SUIGB edo Saharar Emakumeen Batasun Nazionala (SEBN).

Nazioarteko laguntza da kanpamenduetako bizitzaren euskarri handi eta ia bakarra, denborak aurrera egin ahala egitura ekonomiko txikiak sortu badira ere –dendak edo familia negozioak–. Horrek desberdintasunak sortu ditu baliabide gehiago eta gutxiago dituztenen artean, eta gizarte-estratifikazio moduko bat eragin du, hasieran kanpamenduetan ezagutzen ez zena.

Kanpamenduen menpekotasun politiko eta material handia dela eta, kanpamenduetako bizitzan nazioarteko ekonomia eta politikaren gorabeheren aginduetara daude. 2007az geroztik, laguntzak zorrotz murriztu dira mendebaldeko herrialdeetako eta bereziki Europako krisi ekonomikoaren kariatz.

Politikaren esparruan, bi gertaera hauek izan dute eragin handiena saharar biztanleen bizitzan. Alde batetik, 2010az geroztik Afrikako iparraldeko eta Ekialde Hurbileko herrialdeetako hirietako gazte asko bultzatu zituzten erreboltetan, Arabiar Udaberri izenaz ezagutzen direnetan, egin zituzten erreibindikazioak –Mendebaldeko Saharari dagokionez errebolta horien erakusgarri nagusia Gdeim Izik kanpamendukoa izan zen²; eta bestetik, eragin eremu berean joera islamistako muturreko mugimendu armatuen loraldia. Mendebaldeko potentziak egoera horretaz baliatu dira Magrebeko eta Saheleko zenbait herrialdetan esku hartzeko, eta aitzakia izan da kontrol eta presio handiago ezartzeko, kanpamenduetan terrorismo jihadistari aurrea hartzeko diskurtsoa erabiliz.

.....

² Mendebaldeko prentsak Mohamed Bouazizi tunisiar gaztearen immolazioa Arabiar Udaberriaren eragiletzat hartzen badu ere, Noam Chomsky eta beste analista batzuen iritzian matxinadaren hasiera, erreforma politiko eta ekonomiko sakonak egiteko eskakizuna protesta baketsu eta jendetsu batean elkartu zituena, Gdeim Izikeko kanpamenduan gertatu zen, Aaiunetik kilometro batzuetara, non 34000 zibilek haimak muntatu baitzituzten beren eskubide zibil, ekonomiko eta kulturalak eskatzeko. Kanpamendu autogestionatua izan zen esperientziak iraun zuen 29 egunetan, eta marokoar indarrek bortxaz suntsitu zuten azaroaren 8ko goizaldean.

Haatik, Nazio Batuen pasibotasunak, laguntza humanitarioen murrizketak edo balizko arrisku terrorista batengatik kanpamenduak kentzeko mehatxuak ez dira eragozpena izan Fronte Polisarioko eta Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren agintariek berriz ere berrets dezaten apostu egiten dutela kanpamenduetan gazteek dituzten benetako arazoei aurre egitearen alde. Horren erakusgarri dira ikerketa hau egiten ibili garenean erakutsi diguten entusiasmoa eta eman diguten laguntza. Helburu hain goresgarri horretarako ahal izan dugun neurrian laguntzen agian jakin dugula espero dugu.

Arabako SEADen Lagunen Elkarte
Asociación de Amigos y Amigas de la RASD de Álava

Saharar gazteak

Landa ikerketa

Ikerketa soziologiko hau¹ Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Arabako Lagunen Elkartea eskatuta eta SUIGB² (Sagua el-Hamra eta Urrezko Ibaiko Gazterien Batasuna) elkartearekin lanki-

¹ Nafarroako Unibertsitate Publikoko Soziologia Saileko Carlos Vilches Plaza irakasle dokto-reak diseinatu du ikerketa. NUPEKO OTRIK (Ikerketa Emaizak Bestetartzeko Bulegoak) kudeatu duen proiektu honen ikertzaile nagusia ere bada. Natxo Esparza Fernández ikertzailea eta analista da, eta landa-lana koordinatu du. Ikerketa ez zatekeen egingo hauen laguntzarik gabe: Itxaso Jusué, Anchel Reyes eta Gonzalo Reguera (NUP); Mina Sidi, Hareira Mohamed eta Mohamed Sidi Abbas (tokiko taldea); Bachir Mahyub (itzultzailea); Zein Sidahmed eta SUIBB elkartearen egitura wilayetan; Sidahmed Mahmud, Bechari Lamam, Jatri Nafa eta Mohamed Bujari (garraioa). Eskerrak eman nahi dizkiegu Guega Abdelhay, Fatma Larbi, Fatimetu Brahim Salem, Suadu Mohamed Daf, Mariam Nayem Haimudi eta Chibla Omarren familiei, gu hartzeagatik eta zaintzeagatik; Arantza Chacón, Marta Ponce eta Santi Gimeneri (Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoaren Arabako Lagunen Elkartea); Yolanda Aranari (Taller de sociología sl); eta Angel Rekalderi (argitalpenaren berrikuspena). Eskerrak eman nahi dizkiegu, halaber, lanean lagundu diguten erakunde eta profesionali, eta bereziki saharar gazteei beren gauzen berri emateagatik eta bizi esperientziak kontatzeagatik.

² Herri erakunde nazional bat da, bere barnean biltzen dituena saharar herriaren autode-terminazio eskubidea defendatzen duten saharar gazte guztiak. Ahal den baliabide eskasia handienarekin eta Aljeriako hamada babesgabean errefuxiatu bizimoduak dituen baldintza gogorrenetan ari da egiten erakundea bere lan politiko eta soziala. Askapen, eraikuntza eta aurrerabidearen helburu nazionalak lortzeko borrokan ari den talde bat da. Erakundeak lanean dihardu elkarrizketaren, demokraziaren eta adierazpen askatasunaren alde, giza eskubideen alde, barkamenaren eta bakearen kultura zabaltzen, berdintasunari laguntzen, aurrerabidean parte-hartzen eta nazioarteko lankidetzat bultzatzen.



detza estuan egin dugu. Tindufeko (Aljeria) saharar kanpamenduetako gazte errefuxiatuen egoera eta beharrak ezagutzeko eta ebaluatzeko ikerketa bat da, eta hasierako oinarria izango dena gazteen esparruan estrategiak eta politikak bultzatzera eta dinamizatzen zuzendutako etorkizuneko esku-hartzeetarako.

Ikerketak aztergai izan duen populazioa osatzen dute dauden bost kanpamenduetan bizi diren gazte guztiak. Hamabost urtetik hogeita hamar urtera bitarteko adinak dituzte. Ikerketaren unibertsoa erreferentzia puntu arazotsua da. Saharar eta aljeriar agintariek bost kokaguneetan 165 000 biztanle daudela esaten dute; agentzia humanitarioek, ordea, 125 000 besterik ez direla esaten dute. Populazioa bost *wilaya* edo kanpamendutan (Smara, El Aaiún, Ausserd, Dajla eta Bojador) banatzen da. Wilaya bakoitzak bost daira dauzka, eta dairak auzoetan banatzen dira. Antolaketa horren bidez egituratzen da osasun, hezkuntza, ekipamendu eta garraio zerbitzuen hornidura, bai eta elikagai, gas eta beste baliabide batzuen banaketa ere.

Errolda datu ofizialik ere ez dago, aipatu lurraldean bizi diren gazteen zenbaki zehatza zehazteko. Ikerketa batzuen arabera, Afrikan populazio gaztea (hamabost urtetik hogeita hamar urtera arte dituztenena) hango populazio osoaren % 32,4 ingurukoa izatera iristen da, herrialdez herrialde dauden desberdintasun eta berezitasun guztiak aintzat hartuta. Bi mila eta hamalauko abenduko azken datuen arabera, Tindufeko kanpamenduetan 124 260 pertsona³ daude, eta horrek iradokitzen duen hipotesia da 40 260 gazte daudela aurrez zehaztutako adin tarterako.

Aztergaiaren berezitasuna eta populazioaren ideietan eta jarreretan elementu kulturek, identitarioek, soziopolitikoek eta are eszenikoek ere izan dezaketen garrantzia kontuan hartuta, ikerketa soziologiko bat diseinatu zen, aztertutako taldearen itxaropen eta eskarien arabera etorkizunean esku hartzera zuzendutakoa.

Ikerketak praktika eta teknika kualitatibo eta kuantitatiboak⁴ erabili ditu gazteek egun dituzten iritziak eta jarrerak ebaluatu eta atzemateko. Horrez gainera, proposamenak jasotzen dituzten ondorioak ateratzeko, lantegi parte-hartzaileak egin dituzte beren bizitza dinamika aldatzeko interesa duten gazteekin, errealitatearen ezagutza eta uler-

.....

³ Datu horiek bat datoz Saharar Ilargi-erdi Gorriak oinarrizko saskiko produktuak banatzeko erabiltzen dituenekin. Anoak banakakoak dira, hots, pertsona bakoitzeko, eta agentzia handiek, esaterako ACNURrek, ematen dituzten datuetan oinarritzen dira.

⁴ Ikerketaren norainokoa eta bere helburuak definitzeko, ikerketaren hasieran, kanpamenduetako gazte guztiarentzat irekiak ziren sei batzar egin genituen. Aldi berean, hogeita bost elkarrizketa erdiegituratu egin zitzaizkien esparru hauetakoren batekoak diren itzal handiko pertsona batzuei: gizartea, erlijioa, irakaskuntza, politika, lankidetzeta, erakundeak... Ikuspuntu kualitatiboa osatzeko, hamar eztabaida talde egin ziren, bi wilaya bakoitzean. Bai elkarrizketak, bai taldeak euskarri digitalean grabatu ziren, eta edukiak hitzez hitz transkribatu ziren. Atal kuantitatiboan 591 galdetegi bete ziren kanpamendu bakoitzaren ordezkari-tza proportzional batekin. Azkenik, eta etorkizuneko gazteria plan baten lehentasunak eta jarduerak proposatzeko, bost lantegi parte-hartzaile egin ziren, kanpamendu bakoitzean bana, Phillips 66 formatuarekin. Lantegi horietan bi sexu-etako ehun eta hogeita hamabost gaztek parte hartu zuten.

menean sakontzeko, baina baita gazteen inplikazioa eta protagonismoa aktibatzeko ere beren etorkizunaren eraikuntzan.

Ikerketaren helburuak erdiesteko zenbait iturri eta hurbilketa-bide erabili dira. Hasieran ikerketa eskatu zuen elkartearen eskariak jaso ziren. Elkarte horrek lan-esperientzia luzea dauka kanpamenduetan. Gero bi eztabaida-talde eratu ziren Araban bizi diren saharar neska-mutilekin, aztergaiarekin lehen harreman bat ezartzeko. Gero, kanpamenduetara lehen bisita bat eginez, elkarrizketak egin ziren eguneroko bizitzaren ikuspegi pribilegiatua duten pertsonekin (SUIGBeko ordezkariak, langile tekniko eta profesionalak, buru politikoak, sozialak, erlijiosoak, irakasleak...), eta, aldi berean, lan saioak egin ziren, gazte guztiei irekitako batzarretan, haien iritzian ikertu behar ziren behar eta arazo garrantzitsuenak atzemateko.

Bigarren bidaiaren batean, eztabaida-taldeetako saioen eta inkesta-lan sistematiko baten bidez, gazteen diskurtsoaren ikuspegi subjektiboa jaso ahal izan genuen. Esku-hartze horiei esker, ikerketak, bere xedeari jarraiki, giltzarri batzuk erdietsi ditu: Tindufeko kanpamenduetako gazteen egoera sakon ezagutu eta ebaluatzea. Hau da, gazte horien jarre-rak, iritziak, balioak, bizi-ohiturak, sinesmenak eta beharrak zehaztea gai hauetan: prestakuntza eta enplegua, familia-bizitza eta bizi-proiektuak, osasuna, kontsumoak, Internet eta egunero erabiltzen diren teknologiak, aisia eta aisialdia eta nortasuna eta parte-hartze soziopolitikoak.

Helburu nagusi horretaz gainera, beste esparru batzuk ikertu dira, lan egiteko eta esku hartzeko geroagoko programa batzuk optimizatzeari begira. Helburu espezifiko horiek ezagutza-mailan sakondu nahi dute, eta jarraian zerrendatzen diren esparru hauek hartzen dituzte:

Gazte horien profil sozio-demografikoa, hezkuntza-profila eta lan-profila; saharar kultura tradizionala; belaunaldien arteko harremanak; erlijio bizipena; prestakuntza eta kultura gabeziak eta beharrak; enplegua;

ezkontzarekin lotutako familia proiektuak; generoa eta berdintasuna; aisialdia nola banatzen den eta non ematen den (gabeziak eta eskariak); osasunaren pertzepzioa, gaixotasuna eta bizi-ohitura osasungarriak; tabako, alkohol eta beste droga batzuen kontsumoak; gazteen gatazkak; kanpamenduetatik kanpo bizi izandako esperientziak; elkarte, gizarte eta politika arloko parte-hartzea; gazteen iruditeria beren etorkizunari eta gatazkari buruzkoa; eta beren bizitza proiektuak.

Dokumentu honek bi ataletan aurkezten du bi mila eta hamaseiko ekainean idazten amaitu zen txosten soziologiko luze-zabal baten sintesia. «Tradizioa modernitatean» atalak lehenik gazteen bizi egoeraren begirada kualitatibo bat dauka, esparruan adituak diren pertsonen ikuspegi kritikoaren bidez. Gazteen hizkerak testuinguruan jartzen eta ulertzen lagundu dute pertsona horiek; bigarrenik, gazteen diskurtsoa bera aurkezten da. «Gazteak zifratzen» atalak metrika estatistikoan aztertzen ditu kanpamenduetako eguneroko bizitza eta bertako gazteen etorkizuneko aukerak deskribatzen laguntzen duten adierazleak.

Tradizioa modernitatean

Kultura bat trantsizioan¹

Tindufeko kanpamenduetan lanean diharduten pertsona kualifikatuen esanetan, kanpamenduetako gazteen egoerari buruz hitz egitean, deigarria da nola daukaten denek diskurtso bera kanpamenduetako egoera soziala azaltzen duten ardatz ideologiko, ekonomiko eta kulturalak seinalatzean, eta hori guztia aplikatzekoa izango litzateke, oinarrizko alderdiei dagokienez batez ere, saharar diasporaren unibertsoan ere bai. Kontua zen jakitea zein pentsamendu eta iritzi egongo liratekeen Saharako basamortuko habitat bitxi honetan dauden bost wilayetan bizi diren gazteen (hamabost urtetik hogeita hamar urtera bitartekoen)

.....

¹ Rochelle Davisek modernitatea eta tradizioa aztertzen ditu arabiar munduan, enfrontamenduaren ikuspegitik baino gehiago, osagarritasunaren ikuspegitik. Horri buruz hau dio: «Kontserbatzailea edo zaharra den zerbait balitz bezala definitzen dugu guk sarri tradizioa, eta modernoa, berriz, zerbait berria eta aurrerazalea balitz bezala. Baina arabiar munduan jendeak ez du horrela pentsatzen tradizioaz eta modernitateaz, eta gazteek beren bizitzetan arazorik gabe berenganatu dituzte pentsatzeko eta jokatzeko molde modernoa eta molde tradizionala, bai eta produktuak eta teknologiak ere. Egun arabiar munduan gazteek molde tradizionalak erabiltzen dituzte balio modernoak adierazteko, eta molde eta teknologia modernoak kontzeptu eta jokaera tradizionalak adierazteko» (Rochelle David, «Tradición y modernidad», *Revista digital culturas*, 2. zk, 2008, 41-52 orr., <http://revistaculturas.org/wp-content/uploads/2013/02/Tradici%C3%B3n-y-modernidad.pdf> [14/03/2017]).

bizi-egoerari buruz. Egin ditugun ikerketa praktketan banaka eta taldean esan digutenaren arabera, denek uste bera dute: lurralde okupatuaren independentziaren eta askapenaren aldeko borroka da lehen-tasunezko helburua saharar gazteentzat eta, hortaz, baita gainerako belaunaldientzat ere.

Diskurtso partekatu beraren bigarren une batean ideia hau aipatzen dute: kanpamenduetako eguneroko bizitza oso gogorra dela saharar herriarentzat oro har eta gazteentzat bereziki. Bizitzaren gogortasun hori natura ingurunearen, basamortuaren, kontrakotasunaren ondorio omen da. Basamortuan zaila omen da, gainera, kanpoko laguntzekin bakarrik bizirik irautea. Biziraupenerako zailtasunak areagotu egin omen dira azken urteotan krisi ekonomikoaren eta nazioarteko laguntzaren ondoriozko murrizketen eraginez.

Gerraren ondoren², ageriko gatazka amaiturik, baina Marokorekin konpondu gabeko gatazka estaliak irauten duela, Sahara aske eta independente batera itzuli arte kanpamenduetan egonaldi labur bat egingo zutela imajinarioan eraiki zuten ideia hura joan egin da. Horrek egoenezina sortzen du, bereziki gazteen artean, buruko ondoeza barne, aurkako lurralde horretan denbora gehiago egon behar izatera zigortzen dituen etorkizunaren aurrean. Egoera latz horrek ez du eragozten solas guztietan azpimarratzea saharar herriak aljeriar herriari bere laguntza eta abegiagatik erakusten dion esker ona. Baina ulergarria da elkarrizketa guztiak lotzen dituen haria izatea egungo bizitzaren behin-behinekotasuna, kendutako lurraldera itzuli arte. Independentzia saharar populazioaren topagunea eta bizi-proiektu berri eta iraunkorren hasiera da, haiek zein ideologia eta belaunaldiren ikuspuntutik aztertzen diren alde batera utzita.

.....
² Fronte Polisarioaren eta Marokoren arteko gatazka armatua 1975. urtearen amaieran hasi zen, eta su eten batekin eta MINURSOren sorrerarekin bukatu zen 1991n. Egun «ez gerra, ez bake» esaten zaion egoera batean gaude.

Baina gizarte honetan –amets goxoetan Tindufeko basamortutik Mendebaldeko Saharako aberrirako berehalako bidaiarekin–, beste aldaketa batzuk gertatzen eta teilakatzen ari dira, eta garden ikusten dira gazteen egindako prospekzio dinamiketan, eta galdetutako pertsona heldu askorengan. Halatan, aldi berean antzinako kulturaren balioetan oinarritzen den saharar gizarte tradizionalaren aldaketa gertatzen ari da, «kultura globala» deritzanaren ondorio den pseudomodernotasunera, eta prozesu hori gerra garaitik bake garaia igarotzeko prozesuari gainjartzen zaio. Horrek ekartzen duena da elkartasunean oinarritzen den gizarte eredugarri batetik materialistagoa den gizarte eredu batera igarotzea, eta egoismoa nagusi duen gizarte batera eramaten du.

Elkartasunaren balioen eta saharar herrian sortzen ari den egoismoaren artean eraikitako gizarte dualtasun estali hori agerian jartzen da, halaber, gizarte gaietan pentsatzeko eraren beste alderdi batzuetan. Gazteen artean antagonismo moduko bat dago gatazkaren konponbidea irudikatzean: gehiengoa bide baketsuaren aldekoa bada ere, gutxiengo bat, berriz, gerra piztearen aldekoa da. Iraganeko imajinario unibokoaren halako zatiketa bat hautematen da diskurtso sozialean.

Ni solidarioa galtzeko joera hori, hain garrantzitsua gerra garaian, hedatua dago adinagatik enfrentamendu militarren egoera ezagutu ez duten belaunaldietan. Eraitza da pixkanaka aurea hartzen diola behar pertsonalaren konponbidea bilatzeak taldearen interes solidarioari. Hau da, zalantzarik gabe, gazteen parte baten diskurtsoaren aldaketa azaltzen duen arrazoi nagusia. Gazte horientzat gatazkaren konponbidea bigarren mailako kontu bat da.

Saharar gizartearen bilakaerak nabarmen aldatu du, gazteen ideiez gainera, gizarte-egitura osoa. Berdintasun printzipioan oinarritzen da gizarte solidarioa. Printzipio horrek dagoen muturreko txirotasuna, gatazka armatuak areagotua, gainditzen laguntzen zuen, eta baliabide erabilgarri urriak partekatu egiten ziren familiaren esparrutik harago. Egungo erreferentzia esparruak, aldiz, zentraltasun ekonomikoa familian

jartzen du, baliabideak eskuratzeko unitate solidario eta kontsumo unitate gisa. Familiako kideen artean lana duen norbait egoteak edo familiarik kanpoko laguntzak jasotzeak desberdintasun egitura bat sortzen du: alde batetik, baliabide ekonomikoak dituztenak daude, eta bestetik kanpamenduetan aldian behin banatzen diren laguntzetatik bakarrik bizi direnak. Desberdintasun sozioekonomikoa hedatzen ari da pixkanaka.

Bizi-proiektuak eraiki eta bideratzeko itzaropena dakar lanak; egungo familia mantendu ahal izatea, baina baita bizi-proiektu berriak hastea ere. Horrez gainera, zeregina eman eta buru osasuna zaintzen du, aisialdiko denbora-tarte luzeek dakarten asperdura aldietatik askatzen duenez. Denbora tarte horietan ez dago denbora igarotzeko jarduerarik, adingabeen eskola tarteak izan ezik. Aisialdia prestakuntzarekin betetzeko nahia partekatzen dute. Prestakuntza hori lan mundura bideratuta dago beti, autoenplegua bada ere, baina unibertsitatearen arlora baino gehiago arlo profesionalerantz bideratuta dago. Izan ere, ikasten jarraitzearen aurkako halako arbuio bat sortzen ari da nerabeen artean, zeren ohartzen dira atzerrian unibertsitateko prestakuntzako titulu baten jabe diren aurreko belaunaldietakoek, gainerakoek bezala, ez dutela egitekorik.

Aisialdia erabiltzea eta hartaz gozatzea heldu beharreko lehentasuneko politika bihurtu da, eta hori dela-eta nahitaezkoa da esku-hartzeko proiektu integral bat garatzea gazteekin. Gainera, aisialdia ongi erabiltzeak, arlo profesionaletik datozen iradokizunak aintzat hartuz gero, delituzko edo saharar kulturaren aurkako jarduerak agertzea eragozten du, hala nola alkoholaren edo beste droga batzuen kontsumoa, edota legearen mugak gainditzen dituzten zeregin ekonomikoak edukitzea.

Bildutako iritziak bat datoz, halaber, osasunaren gaian, bai bere alderdi fisikoan, bai alderdi mentalean. Ikerketak egiaztatzen du kanpamenduetako populazioaren parte handi batek ez dakiela zein den bere osasun egoera, eta ezagutza-adierazle oinarrizkoak falta zaiz-

kiela, hala nola: pisua, garaiera, GMIA (gorputz masaren indizea), tentsioa, edo ikusmenaren egoera. Alde horretatik badago eskari esplizitu bat, osasun kontrol eta jarraipeneko protokoloak ezar daitezzen, zeinak atzerrian bizi izan direnek ezagutzen baitituzte, Espainian edo Kuban, esaterako, bizi ziren garaietatik.

Eragina izaten ari dira, itxura denez, gazteen parte baten osasun fisikoan eta buru osasunean, gehiegizko aisialdiaren ondorio diren egoerak, hots, lanik eza, ezkontzeko zailtasunak eta gazteen artean hedatzen ari den desberdintasun ekonomikoa (kontsumo-gizartearen eredia hedatzen da telebisten, teknologia berrien eta atzerriak ikusitako bizimoduaren eraginez). Aurkako ingurune fisikoak, jan-edanaren murrizketa gero eta handiagoak, kanpamendu batzuetan uraren gaitasunak, gaixotasunei aurrea hartzeko osasun baliabideen mugek eta abarrek eragin zuzena dute populazioaren osasun egoeran. Hortzetako eta ikusmeneko arazoak, malnutrizioa eta anemia, digestio arazoak, asma... gaixotasun ohikoenetako batzuk dira. Horretaz gainera, buru gaixotasuna tabua da saharar gizartean, eta horrek zailtasun erantsiak ekartzen ditu esku-hartze psikologikoa behar denean. Kanpamenduetan psikiatriako langileak ez daudenez, psikologiako profesionalak izaten dira buru gaixotasun ia guztien tratamenduaz arduratzen direnak.

Emakumeei dagokienez, eta osasunaren esparruan, nabarmendu behar da presioa egiten dutela osasunean emakumezkoen gorputzari begira indarra duten bi estereotipok (tradizionala, gehiegizko pisuaren eredutik abiatuz eraikitakoa, eta oraingoa, emakume argalarena eta azal zuria duenarena). Gazte batzuek sendagai kaltegarriak erabiltzen dituzte emakumezkoen edertasun kanon horiek lortzeko. Emakumeak kexu dira familiek, eta gizarteak berak, bereziki haiengan duten gehiegizko kontrolaz eta presioaz: generoaren aldetik eta gazte diren aldetik.

Gai horiek guztiek sare diskurtsibo konplexu bat osatzen dute, hurrengo kapituluetan xehetasun handiagoz aztertuko duguna.

Eszena eta bere bilbe soziala

Gazteen diskurtsoa eta bere zentzua interpretatzerakoan aipatu behar den lehenengo gai bat hau da: gizarte analisisian behin eta berriz hitz egiten da gazteriaz klase homogeen bat balitz bezala. Gazteria kategoria sozial bat da, baina adostasunik ere ez dago gazteria moduan definitzeko zein adin talde hartu behar den aintzat esateko orduan. Herrialde garatuetan, gazteen bizi eremua aldatzen joan da, eta egokitzen, familieren etxetik joateko garaiarekin. Beste gizarte batzuetan subjektu heldu edo nagusi izateko jauzia ezkontzean edo adin-nagusitasunera heltzean gertatzen da. Saharar gizartean, gizartean eta administrazioan kontuan hartzeko izateko berrogeita bost urte beteak eduki behar dira. Gure ikerketa honetan hogeita hamar urteko adina hartu dugu ikerketaren unibertsoaren muga jartzeko.

Egiaztapen hori, hau da, gizarte guztietan garai batean gazteen tipologia desberdinak batera izaten direla, zeina ikerketa soziologikoak ere berresten baitu, begien bistakoa bihurtzen da saharar gazteriaz hitz egitean, elkarrizketetan parte hartu zutenen diskurtsoan. Aniztasun hori aberastasun kultural, sozial eta politikoa den aldetik ulertu behar da, korapilatsuak badira ere hura zaintzeko estrategiak. Elkarrizketatuek

saharar gazteria heterogeneoa dela azpimarratzen dute, eta ideia hori agerikoa da ezaugarri hauen artean dauden desberdintasunei begira: adina, generoa, prestakuntza maila, ideologia politikoa, konpromiso soziala, beste kultura batzuekin batera bizi izana edo ez, familia ardurak, kanpamenduetan bizitzea edota lurralde askatueta, okupatueta edo diasporan, eta gazteek izan dituzten bizi-esperientzia desberdinak. Gazteekin erabiltzen den edozein lan ikuspegik desberdintasun egoera hori izan behar du abiapuntu.

Emakumeen desberdintasuna dela-eta elkarrizketatu batek esan zuenez,

belaunaldi honetan badago emakume talde bat Aljerian ikasi, eta beste pentsamolde batekin etortzen dena, beste pentsamendu batzuekin, beste helburu batekin. Badaude beste batzuk Kubatik etortzen direnak, Libiatik...

Gerra garaiko eredu berdinaletik abiatuz trantsizioan dabilen gizarteari buruzko ideia, belaunaldi guztien arteko elkartasunean oinarritua herri gisa bizirik irauteko, bide ematen ari zaio, bake garaian, materialismo egoistan oinarritutako gizarte eredu bati. Eredu hori errotuagoa dago gazte batzuen artean, ezarian-ezarian gainerako belaunaldietara hedatzen ari bada ere. Gizarte nomada batetik gizarte sedentario batera igarotzea, gamelu eta ahuntz oihalezko jatorrizko *haiman*³ bizitzetik lasto-buztinezko etxe errotuan bizitzera, familia zabalean errotutako tribu-gizarte batetik familia unitate nuklearrago batera igarotzea edo biziraupeneko ekonomia batetik kontsumo-gizarte batera igarotzea –soilik irudikatuz bada ere, etorkizuneko idearioan– aldaketa garrantzitsuak dira, bizimoduari eragiten diotenak, baina gehiago pentsamolde aldaketari.

.....

³ Abadila Hasannak, hasania saharar dialektoan mintzo den poetak, esaten du basamortuko gizakiak lotura estua duela haimarekin. Haima eskuzabaltasunaren ikurra da, eta ikusizko erreferentzia-puntuaren eta abegiaren esanahia izan du beti basamortuko eremu zabala-goak zeharkatzen dituzten nomadentzat.

Guerra bizi izan zuten gizon-emakumeen artean errotuagoa dago gizarte solidarioaren ideia hori. Aitzitik, saharar gizartea aldatu zuen gatazka ezagutu ez zuten belaunaldi berriak liluratuta daude telebistek eta teknologia berriek hedonismoan oinarritzen den gizarteaz ematen dituzten ereduekin. Eta kultura berekia egunerokotasunean errotuta badago ere, kontsumo-gizarteak ezartzen duen sedukzio subliminalari aurre egitea zaila da gizartearentzat. Horregatik azpimarratzen dute elkarrizketatuek garrantzitsua dela gazteengan oroimen historikoa bizirik iraunaraztea eta kultura tradizionalaren balio berekietan berriz hezte. Aldaketaren ideia hori dela-eta, larruzko haimatik lasto-buztinezko etxera igarotzearekin gauzatu, metafora esanguratsu bat entzun dugu denda tradizionalan bizitzea zer zen esaten duena:

Antzina, haima irekita egoten zen bere lau ateetatik puntu kardinaletara eta besteekiko solidaritate eta abegi onera. Lasto-buztinezko etxera aldatzean, atea ixten da, eta jada ez da ez haizerik, ez harearik sartzen barrura, baina pertsonarik ere ez.

Solas horrek argi eta garbi erakusten du gertatu den aldaketa gizarte ireki batetik gizarte itxi batera.



Lan komunitarioa gazteak oro har eta bereziki emakumeak motibatzen orientatu behar da, belaunaldi-ordezkapena gidatzeko, eta kultura berekiaren printzipioetatik gizarte aske eta independente baterako aldaketa eta igarobidea zuzentzeko. Zeregin horretan funtsezkoa da emakumeek –konpromiso sozial handia dute– urratsa egitea ahalduntze handiago baterantz, saharar erakunde sozial eta politikoen buru izateko konpromisoa ere har dezaten.

Helduek hitzez adierazten dute berariazko eskari bat, alegia, gazteek beren konpromisoarekin itzul dezaten aurreko belaunaldiek egungo egoera lortzeko egin duten ahalegina. Ez da gazteei zerbait aurpegiratzeko diskurtso bat, baizik eta etorkizun kolektiboarekiko erantzukizun handiagoa izateko eskaera, norberaren kultura idiosinkrasiatik eta belaunaldien arteko errespetutik abiatuz. Diskurtsoak badauka ezkutuko ideia bat, elkarrizketa gehienetan agertzen dena, hots, iritsi dela garaia gizartearen burutzan belaunaldi batek bestea ordezkatzeko. Ordezkapena hurbil-hurbil dago. Beraz, dei egiten zaie gazteei gizarte solidarioaren eredura itzul daitezen, hori baita une hauetan behar dena, garai berriek eskatzen duten independentziarako trantsizioa burutzeko.

Belaunaldien artean estatus eta rolen ordezkapena egitea da datozen garai berrien giltzarrietako bat. Haien hitzak erabiliz,

bi belaunaldi daude, bat egoista, esan dezagun, eta bestea solidarioa [...] Ikusten dugunez, belaunaldi berriak, edo belaunaldi egoistak, ardura handiak ditu eta gauza asko itzultzeko belaunaldi solidarioari [...] Belaunaldi berria ez bada bere aulkietatik altxatzen, aurreko belaunaldiek ezin dute atera dauden egoeratik.

Elkarri erraz egokitzeko, belaunaldien arteko harremanak errespetuan oinarritu behar dira. Balio hori badago kultura tradizionalan, eta kultura demokratiko batetik ere azter daiteke. Errespetuak pertsonen arteko elkarrizketa eta adostasuna ahalbidetzen ditu. Belau-

naldien arteko topaketaren kultura horretatik oinarritu daiteke komunikazioa: hitz egiteko eta entzuteko jolasean, eta enpatia bilatzen beste pertsonaren bizi-egoerarekin (beste belaunaldiaren egoeran jartzen). Errespetuaren galera gero eta handiagoa, gure solaskideek identifikatzen dutena, konpontzeko modukoa litzateke, saharar kulturaren esentzia bitxia ulertuz; beraz, gazteen artean kultura berekia zabaltzeko jarduerak eta prestakuntza jarduerak sortzearen aldekoak dira, azken batean, saharar kulturak ematen baitio herri honi nortasun berezitua.

Erlijioaren bzipena

Gdeim Iziken bi mila eta hamarreko urritik azarora bitartean «Duintasuna» kanpamendua eraiki zenetik, saharar gizarteak oro har eta klase politikoak bereziki kontzientzia handiagoa dute gazteek Saharako Errepublikara Arabiar Demokratikoan izan behar duten protagonismoari buruz.

Gdeim Izik arabiar udaberria deritzanaren abiapuntua izan zen. Erreibindikazio politikoak Afrikako iparralde eta Ekialde Hurbil osoan hedatzeak berekin ekarri zuen Mendebalde berririko Mendebaldeko Saharara begira jartzea bere interesetarako duen balio estrategiko handiagatik. Horren ondorioz, diskurtso ofizialak nahita identifikatu du herri-errebolten hedapena (zeinen protagonista jendetsuak hiritako gazteak izan baitziren) inguruneko herrialde batzuetan joera islamistako muturreko mugimenduen agerpenarekin. Nahasmendu hori nahita bilatzen da hirugarren herrialde batzuen esku-hartzeko zuzena justifikatzeko, eremu horretan dituzten interes politiko eta ekonomikoak babestu nahi baitituzte. Testuinguru soziopolitiko horrek eragina izan du, halaber, kanpamenduetan eta bereziki gazteen artean.

Horregatik guztiagatik, beharrezkoa dirudi aztertzea erlijioak saharar gazteengan duen dimentsio bikoitza, bizitzeko moldeetan eta integra-

zio edo desintegrazio sozialerako gaitasunean aldaketak sortzeko faktorea den aldetik.

Ez da harrizkoa, hortaz, elkarrizketatuek ideia hau nabarmentzea: erlijio islamikoa tokiko kulturan integratuta dagoela, eta, horretaz gainera, erradikaltasunik ez duela, zeren, gizabanakoari askatasun gehiago ematen dionez eta beste herrialde batzuetan baino dogmatismo eta erradikaltasun gutxiago duenez, modu berezi batean bizi baitute. Nolanahi ere, gazteen artean erlijio kulturaren eta bizitzeko moldeetan gertatzen ari diren aldaketak ere horren eraginpean daude. Saharar gazteriarren parte batek hartu dituen estetika eta kontsumo ereduaren aldaketak ongi ezagutzen dituzte erlijio buruek, eta horren berri ematen dute.

Tokiko meskita bateko erlijio gaietako arduradun batek nabarmendu du Islama gizarte solidario baten aldekoa dela, non norberak duena partekatu behar baitu. Itxura denez, erlijio printzipio hori beti egon da saharar herrian, eta biziraupen kolektiboaren bermea izan da gatazka armatuaren garaian. Gizarte solidarioaren filosofia hori bat dator profetaren esanarekin: «Zuetako inor ez da sinesduna, bere buruari opa diona anaiari opa ez dion bitartean» (Al-Bujari, *A manual of Hadith*, II. atala, 9 zbk.).

Zeharkako akordio bat dago elkarrizketatuen artean ideia honen inguruan: gazteek interes handiagoa dute erlijioarekin azken urteetan. Bake prozesuaren garaian meskita gehiago eraiki dituzte, eta gazte gehiago joaten dira meskitetara otoitz egitera, baina baita ere Koranari buruzko prestakuntza jasotzera eta meskitek antolatzen dituzten jardueretan parte hartzera. Erlijioa, saharar kulturaren erlijiozko alderdiak duen berezitasun hori galdu gabe ere, ikusgai egin da lehen baino gehiago esparru publikoan. Hala, otoitzak haimetatik kanpo egiten dira, Ramadana intentsitate handiagoz errespetatzen da, edo gero eta gehiago dira Salat otoitzaren aurreko garbiketarik egiten dituztenak (eta ez Tayammum izenekoa –garbiketa lehorra–, harri naturalarekin egiten dena).

Azterketak egiaztatzen du kexa esplizitu bat badutela meskitetako eta eskola koranikoetako arduradunek, deitoratzen baitute erlijio ingurune horietan prestakuntza jarduera irekiak egiten direla, ez soilik erlijiozkoak, gazteentzako lan prestakuntzarako ere bai. Beste erakunde batzuek laguntza ekonomikoak edo materialak jasotzen omen dituzte atzerriko gobernuen edo GGKEen bidez, eta beren proiektuetarako, ordea, ez omen dute kanpoko laguntzarik. Kexu dira mendebaldeko erakundeek kultura aurreiritziak dauzkatelako erlijio islamikoarekin eta bere erakundeekin.

Familia eta ezkontza

Kanpamenduetako ingurunean ezkontza sozializazio gisa ikusten da, eta, aldi berean, gizartearen eta gizabanakoaren arazo gisa. Sozializazio prozesuan ezkontza kultura ororen funtsezko mugarrietako bat da; gaztarotik heldutasunera doan denbora mugatzen du. Gizarte tradizionaletan eutsi egiten zaie pertsonak beren jatorrizko familiarekin bizitza osoan lotzen dituzten harremanei, ezkontza izan daitekeen arren familia unitate independente berri baten sorreraren hasiera. Ohikoa da arabiar gizarte batzuetan, Saharan geratzen den bezala, bikote berriek bere haima jatorrizko familiaren ondoan eraikitzea. Horrek esan nahi du familia zabalaren ereduak iraungo duela. Familia elkartzeko eredu horri eutsi egiten zaio egun Saharako errefuxiatuen Kanpamenduetan, modernitateak familia ere barreiatu eta nuklearrago bat inposatzen badu ere.

Lana da giltzarria familia unitate berri bat eraiki eta mantentzeko. Baliabide ekonomikorik ez dutenek ezin diete aurre egin ezkontzak edo haimaren eraikuntzak ekartzen dituen gastuei, eta are gutxiago bermatu haurrak hazteko aldiko bizi-prozesua, ez badute bermerik baliabide ekonomiko apur bat egonkorrek edukitzeko. Ondorioz, zaila da ezkontza gehiago egotea, gutxienez ere, kanpamenduetako gazteen artean dagoen langabezi tasa handiagatik. Kasu batzuetan familia zorpetzeko egoerak sorrarazten ditu horrek, eta noizean behin legez kanpoko jar-

duerak ere izaten dira. Lanik ezak eta horren ondorioz kanpamenduetan ezkontza gutxi egiteak bizi-krisia eragiten du askotan, eta muturreraino eramanez gero, nahasmendu psikologikoak eragin ditzake. Gai hori berriro jorratuko dugu osasunaren gaia aztertzen dugunean.

Gerra garaian ezkontzak zeremonia labur baten bidez eta inbertsio ekonomiko txiki batekin egiten ziren. Bakearekin eta gero eta gehiago eredu kontsumista hedatzearekin, kostu handiko ezkontza orokortu da, eta herritar gehienek ezin dute horrela ezkondu. Joera hori zuzentzeko, gobernuak, tribuetako buruzagiekin batera, arau bat ezarri zuen ezkontzak egiteko egunak, zeremoniaren ospakizunak eta ezkonsariak mugatzeko. Hori gorabehera, ezkontza atzeratu egiten da ongi ezarritako haima bat eta etorkizunari aurre egiteko nolabaiteko segurtasun ekonomiko bat eduki arte. Horrela, ekonomiak modu erabakigarrian baldintzatzen ditu bikote harremanak eta ezkontzeko aukerak gaur egungo saharar gazteen artean.

Solasaldi batzuetan aipatzen da etxetik kanpo lanik ez duten neska batzuek ezkontza aurreratzen dutela, edo bikotetzat onartzen dutela egonkortasun ekonomikoa bermatuko dien pertsona bat. Batetik, jatorrizko familia uzteko egiten dute, eta bestetik estatus sozial jakin bat eta bizitza antolatzeko aukera emango dien eginkizun bat lortzeko (ezkontza funtzionala, maitemindu gabe egiten dena). Horrek azaltzen du fenomeno berri samar bat agertu izana: bikote gazteen artean dibortzioak areagotzea. Presaka ezkontzeagatik, eta kasu askotan ezkontideek ia elkar ezagutu gabe ezkontzeagatik, izaten dira gero tirabirak bikoteetan. Batzuetan ezkontza behartuak izaten dira, eta gizarte imitazioko egoeren ondorio ere bai. Esaterako, inguruneke pertsona gehienak ezkondu ondoren, ezkongabe gelditu, eta baliteke horrek urruntze handia ekartzea norberarekin batera hazi direnen talde sozializatzailearekin.

Saharar kulturaren bereizgarria da dibortzioa, arabiar gizarte gehienetan ez bezala, ez dagoela gaizki ikusia gizartean. Zilegi da bikotea

bere borondatez dibortziaztea, eta ohikoa da zenbait banantze prozesutatik igaro diren gizon-emakumeak egotea. Nolanahi ere, gizona da, dokumentu idatzi baten bidez, fede ematen duena dibortzio bat egiaz izan dela, eta hortik aurrera ezkontideek zilegi dute bikotekide berriak aurkitzea. Nolanahi ere, dibortzio gehiago egoteak berekin ekartzen du, ia beti, adingabeak amen tutoretzapean geratzea, edo familiako beste kide batzuek zaindu eta mantendu behar izatea (batez ere bikotekide berriak onartzen ez dituenean, esaterako, aurreko ezkontzetako seme-alabak).

Enplegua bizitzaren ardatz gisa

Prestakuntza-lanaren ardatza kezka nagusi bihurtu da, batetik, gazteek gehiegizko aisialdiagatik alferkeriazko bizitza izaten dutelako, eta, bestetik, gizarte berriaren oinarria delako, independentziarekin langile profesionalak beharko baititu esparru guztietarako. Beraz, produktibitatearen ideiak definitzen duen prestakuntzaz hitz egiten da. Alde batetik, beste herrialde batzuetan prestatutako gazteak daukate beren artean, beren lizentziatura, gradu eta ingeniartzekin, baina, horretaz gainera, beharrezkoa litzateke gizon-emakume profesionalak edukitzea, hainbat lan esparrutan esku hartzeko gai izango direnak, hala nola, eraikuntzan, mekanikan, zurgintzan, informatikan, jantzigintzan, merkataritzan, zerbitzuetan eta abarretan.

Lan pizgarririk ez edukitzearen ondorioz gazte askok ikasketak uzten dituzte –bosgarren maila aldera– beste zeregin batzuetan aritzeko. Esaterako, adreilugintzan, familiari ekonomikoki laguntzeko. Emaitza da deseskolatze egoerak eta analfabetismo-indizea asko areagotzen ari direla nerabeen artean.

Antagonismoa dago bi gazte multzo hauen artean: batetik, adin handi-diagoko gazteak, lehenago beste herrialde batzuetan ikasteko zeuden erraztasunengatik, unibertsitateko ikasketak eta kualifikazio ona dauz-

katena, eta bestetik, belaunaldi berrikoak, prestakuntza maila gero eta eskasagoa dutenak. Joera hori aldatzeko proposatzen da liburutegiak, ikastaroak eta prestakuntza jarduerak egitea esparru guztietan, eta bereziki informatikaren esparruan, prebentziozko estrategia gisa, gazteak ez daitezen alferkerian ibili eta/edo delituzko jardueretan, ezjakintasun gero eta handiagoaren eraginez. Prestakuntzari dagokionez dagoen alde gutxiagotzeko, ikasketak eta prestakuntza akademikoa dituztenek gizarte-boluntariotza batean parte hartzea proposatzen da, ikasketarik gabeko beste segmentuko gazteak prestatzeko.

Eskolatze orokor handiagoa mesedetuko duten erreformen artean eskatzen den beste bat da ikastetxeetarako garraio publikoa ezartzea. Wilaya batzuetan distantziak handiak dira, eta bero handieneko garaietan joan-etorri horiek bereziki nekagarriak dira ikasleentzat. Eskoletan elikadura eta dieta indartzearena da garatu beharreko beste lan ildo bat.

Gehiegizko aisialdiari aurre egiteko beharrezkotzat hartzen da kirol jardueren antolaketan lan egitea; batez ere, adinean aurrera egin ahala, sedentario bihurtzen diren pertsonentzat (are nabarmenagoa dena emakumeen artean). Kirol jarduera jarraituak proposatzen dira, auzo, *daira* eta wilayetako taldeen arteko lehiaketa eta txapelketekin lotutakoak. Kanpoan lehiatzeko aukera izango duten klub eta taldeak sortzea akuilua izango litzateke gazteek kirola egiteko, eta nortasunaren berrespen bat gizarte osoarentzat.

Emakumeen kasuan, enplegurik ezak eta gehiegizko aisialdiak eremu pribatura igortzen ditu, non telesailak (telenobelak) asperduraren aurkako ihesleku baitira, baina, aldi berean, eguneroko bizitzatik at uzten ditu. Kanpamenduetan, elektrizitatea eguzki panelen bidez bakarrik lortzen baitute, telebistaren energia kontsumo handiak arazo handiak sortzen dizkio familia osoari, zeren telebista tresnek bateriak agortu, eta familiak energiarik gabe uzten dituzte behar ezinbestetarako. Eguneroko gatazka da familiako kideen artean.

Lana da gobernuaren politikek landu behar duten lehentasuneko gaia. Enplegua izatea ez da bakarrik baliabide ekonomikoak edukitzea, baizik eta etorkizuneko edozein proiekturen ardatz nagusi bihurtzen da. Adierazi dugun bezala, lanik gabe luze egoteak lan aukera irregularrak bilatzera behartzen ditu gazteak diru-iturriren bat bermatzeko.

Interes ekonomikoak eragiten duen joera horrek berekin dakar, bide batez, gazteek interes gutxiago edukitzea komunitatearen aldeko boluntariorizan. Boluntarioriza lan hori baliabide ekonomiko gutxiako gizarte baten beharrei erantzuteko modu tradizionala izan da. Boluntarioriza lana hedatu nahi bada, zailtasun jakin bati aurre egin behar zaio garai honetan. Izan ere, saharar gazteriaren parte handi batean zabaldu den ideia da lana nahitaez lansari batekin lotzen dela. Gizarte boluntarioriza hori berreskuratzeko nahitaezkoa da gazteak ideologikoki motibatzea eta konpromiso kota handiagoak sustatzea. Ikuspegi politikoenetik langabeziaren arazoaren konponbidea independentziarekin eta nazioaren askapenarekin lotzen da.

Lanik ezak gehiago eragiten die emakumeei, zigortu egiten baititu etxean (pribatua denaren gune ikustezinean) bakarturik egotera. Emakume prestatuak dira, unibertsitateko titulaziodunak, eta oroz gain etxeko kontuez arduratu behar dute; emakume horiek zailtasunak dituzte goraka ari diren sektoreetan lan egiteko, sektore horiek bakarrik gizonentzat direla pentsatzen baita. Hori dela-eta bereziki azpimarratzen da emakumeen autoestimua indartzeko beharra, bai eta haien ahalduntzea bultzatzeko premia, langune guztietara eta egun emakumerik ia ez duten erantzukizun handiko lanpostuetara.

Emakumeen egoera horren aurrean, berdintasunerako plan integral batean lan egiteko eskaria iradokitzen da, saharar emakumea sozialki birkokatze eta gizonekin parekatze, bereziki lan esparruan. Zenbait neurri lagungarri har daitezke ahalduntze hori mesedetzeko, esaterako, garraio publikoaren sare bat sortzea, emakumeen mugikortasuna errazteko, zeren egun gertatzen baita profesionalki ongi prestatuta

dauden emakumeek ezin dutela Rabunira⁴ lanera joan, zenbait egunez etxetik kanpo egon behar baitute, eta ezin baitute hori onartu. Beste garraio mota bat erabiltzeak, ekonomikoki bideragarria ez izateaz gainera, arrisku pertsonal jakin batzuk onartzea dakar.

Azaltzen ari garenez, elkarrizketa guztietan txirikordatuak agertzen dira kultura eta erlijio elementuak; eta hori areagotu egiten da emakumez hitz egitean saharar gizaratean. Elkarrizketatu batek azaltzen duenez,

Emakumeei askatasun gehiago emateko aukera onartzen duen gizarte bat gara [...] Guk daukagun Islama irekia da, behartzen ez duen Islam bat [...] Fronte Polisarioa, askapen mugimendua, etorri zenean, saharar emakumea maila bat gorago jarri ahal izan zuen, aukera gehiago ireki zizkion, saharar emakumei parte-hartze handiagoa eman zien.



.....
⁴ Rabuni kanpamenduetako hiriburu administratiboa da, eta bertan daude zerbitzu eta zentro administratibo gehienak.

Gizonen aurrean emakumearen eskubideak berdintasunean defendatzeko egiten den erreibindikazioa beren kulturatik beretik jaiotzen da, baina, halaber, Fronte Polisarioak sustatutako askapen nazionalerako mugimenduaren filosofiatik. Datu horrek bereizten du saharar gizartea bere inguruneko arabiar gizarteetatik. Hori gorabehera, onartzen dute –batez ere emakumeei buruzko diskurtsoan– badaudela oraindik eremu batzuk, zeinetan emakumeek praktikan gauzatu egin behar baitituzte ideia teorikoetan aitortzen zaizkien eskubideak. Batez ere eremu publikoan, eta lan eremuan bereziki.

Buru osasuna estigma gisa

Kanpamenduetako eguneroko bizimodu gogorak populazioak jasaten dituen osasun baldintzetan eragina du nahitaez. Lurralde eta klima etsai dituztela, elikaduraren eta ur kalitatearen urritasunak, banatutako familiak, baliabide ekonomikorik eza eta langabezia dira, bai eta ezkontzeko zailtasunak edo etorkizun zalantzarriaren aurreko itzaropenik eza ere, besteak beste, populazioak oro har eta gazteek bereziki izaten dituzten gaixotasunen zergatikoak. Horrez gainera, egoera hori luzatzeak –berrogei urte baino gehiago independentziarako bidean– ez du laguntzen bizitza osasungarria izateko. Gatazka laster konpontzeko itxaropena galtzea da buru osasunarekin lotutako arazoak sortzen dituzten faktore-etako bat, elkarrizketatu ditugun psikologoek azaldu digutenez.

Gazteen kasu espezifikoa, aisialdiari zentzua emango dioten ekimenik gabeko egun luzeek etsipena eta gogo-aldarte osasungarriaren galera dakarte. Hori dela-eta kirola, prestakuntza eta kultura jarduerak, Internet, jolasa eta abarrak sustatu behar dira, zeren gazteentzat zeregina, bakardadearen eta asperduraren aurkako antidotoa izateaz gainera, depresioaren aurkako terapia ere bada.

Dauden nahasmenduetako asko gaindituko dira, dudarik gabe, independentzia lortzen denean eta egun Marokok inbaditutako lurral-

deetara itzultzen direnean. Psikologiako profesional guzti-guztien esanetan, bistan denez, sahararrek dituzten gatazka emozionalak bultzuen jatorria beraien eguneroko bizitzako baldintza fisiko eta mental gogorretan dago.

Lanik ezak eragina du osasunean, bai alderdi fisikoan bai alderdi psikologikoan. Gazteek presio handia jasaten dute familiaren egoera ekonomikoa konpontzeko, eta horrek batzuetan ikasketak behar baino lehen uztera eramaten ditu lana bilatzeko, eta ikasketak bukatu dituztenak, berriz, frustraziora, ez baitute beren prestakuntzari dagokion lan bat aurkitzen. Nolanahi ere, kanpamenduetan bizi diren gehienei egoera jarraituak langabezian etenik gabeko larritasuna eragiten die. Lanik eta diru-sarrera ekonomikorik gabe, edozein bizi-proiektu mugatua da; bereziki, ezkontzeko aukera blokeatzen du zuzenean. Proiektu pertsonalak zapuztearekin batera azken urteotan buru gaixotasunak eta patologia areagotu egin dira. Esaterako, depresioa nesken artean, eta fobiak, antsietatea, psikosia edo nahasmendu bipolarra, bereziki gizonaen artean.

Bestalde, langabeziaren kariatz gazte batzuek –gutxi badira ere– delituetan bilatzen dituzte konponbide ekonomikoak, edo arazo horiek ahazten saiatzen dira substantzia toxikoen kontsumoaren bidez. Substantzia horien kontsumoak eragina izan dezake beren osasun fisiko eta mentalean. Egoera hori konplexua da saharar kulturaren, familiariek ez baitute buru gaixotasuna ulertzen, eta ezkutatu egiten baitute tabu sozial bat delako. Horrek lan terapeutikoa oztokatzen du.

Generoak desberdintasunak markatzen ditu buru gaixotasunaren aurrean. Emakumeek konfiantza eta espontaneotasun handiagoa dute beren familiako kide eta adiskideen artean beren beldur, larrimin edo nahasmenduen berri emateko, eta buru osasuneko kontsultara joateko aurreiritzi gutxiago. Gizonek arazo psikologikoak ezkutatu dituzte, isilpean gordetzen dituzte, eta azkenean kontsultara joaten direnean patologia akutuagoak dira.

Ezkontzari dagokionez, hogeita bost urte baino gehiago dituzten eta ezkondu ez diren emakumeek gizonak baino presio handiagoa jasaten dute familiaren eta adiskideen aldetik, zergatik dauden ezkongabe galdetzen baitiete behin eta berriz. Gizarte eta familiaren presio horrek nahasmendu psikologikoak eragin ditzake.

Emakumeen gorputzari buruzko estereotipoak beste arrisku faktore bat dira osasunerako, bereziki autoestimua eskasa duten emakumeentzat. Erakargarriagoak egoteko eta adinez nagusiago direla itxurak egiteko (ezkontzeko) kortikoideak erabiltzen dituzte pisua eta bolumena handiagotzeko, edo larruazala koloregabetzen duten kremak jartzen dituzte. Praktika horiek nabarmen aldatzen dute beren osasun egoera. Wilaya bakoitzeko osasun eta psikologia taldeentzat lehenetsua izan du, azken urteetan, emakumeen prestakuntzak eta prebentzioak, beren osasunerako arriskutsuak diren jokabide horien aurrean.

Gazteek esaten dutena

Pasio eutsia

Taldeko saioetan gazteek esan digutena aztertzen da kapitulu honean. Zentzu integratzailean hizpidea eman zaienez, askatasunez azaldu ahal izan dituzte beren desira eta behar garrantzitsuenak. Muturreko baldintza fisiko eta psikologiko gogor horietan, normala da diskurtso kritiko eta batzuetan etorkizunari begira itxaropenik ez duen bat azaleratzea.

Gazteak berdin zirikatu ditugu saio guztietan, beren bizitzaren istorioari buruz hitz egin zezaten eta beren kontakizun existentziala egin zezaten: Saharako kanpamenduetako gazte errefuxiatuen egoera ekarri diegu hizpidera. Taldeekin egin ditugun saioak modu ordenatuan garatu dira, eta halako crescendo pasionala izan dute, parte-hartzaileen bizitzan garrantzitsuenak ziren gaietara hurbildu ahala. Eta pasio eutsia diogu izenburuan, zeren esku-hartzeetan ozenago hitz egiten baitute batzuetan, baina beren burua kontrolatzen dute zarata gehiegi atera nahi ez balute bezala; aldaketa sozialaren alde xuxurla bat baino ez dadila entzun kanpoan.



Adostasun puntu nagusia gatazkaren ez aurrera ez atzerako egoeran dago. Taldeko dinamiketan *impasse* ideia horren diskurtso berrespen bat dago, eta hori estatus, tribu-partaidetza, genero eta adin desberdintasunen gainetik azaleratzen da. Badago esku-hartzeetan azpiko hitzarmen bat, gazteek saharar gizartearen parte baten eta hura zuzentzen duen egitura politikoaren konformismo erlatiboa hausteko duen borondateari dagokiona.

Gatazkari irtenbide bat bilatzeko errebeldiarako dei bat entzuten da taldeetan¹. Zeren, egungo baldintzetan irauteak, gazteen ikuspegi-

.....
¹ Talde guztietan gatazkari irtenbidea ematearen garrantzia eta independentzia lortzearen garrantzia, biak hizpidera ekartzen badira ere, gizonen taldeetan diskurtsoak irmotasun handiagoaren itxura du.

tik bederen, porrotera baitarama edozein bizi-proiektu. Erljioarekiko begirada, gazteekin lotutako gatazken agerpena, buru gaixotasunen areagotzea, droga kontsumoa, disidentzia jarrerak, bakea-gerra dualtasun diskurtsiboaren agerpena, hori guztia gazteen artean dagoen *ezkutuko* gatazka baten zantzua da. Kanpamenduak bilakatu diren linbo horretatik irtetea premiazkoa da, epe ertainean, ezkutuko gatazka hori *agerikoa* bihur dadin eragozteko.

Arabiar udaberritik eta Espainiako M15eko suminduen mugimendutik aurrera (2011ko maiatzaren 15ean izan zena) gazteen ideietan agertzen diren aldaketei buruz aipatutakoarekin bat etorritz, sistema politiko tradizionalen irekitasun handiagoaren eskaria badela egiaztatzen da, saharar gazteen parte-hartze soziopolitiko aktiboago bat sustatzeko. Aldi berean, gardentasun gehiago eskatzen da, gizarte berdinzaleago bat eta boteretik hurbil dauden familia batzuek dituzten pribilegioen amaiera. Finean, boterean belaunaldi aldaketa bat egiteko eskatzen da, gazteek sistema politikoan parte har dezaten tribuen sistemari pribilegiorik eman gabe.

Berdintasunaren eskaera hori, klase eta kastarik gabeko gizarte baten eskaera, bereziki nabarmentzen da kanpamenduetako lanpostu administratiboetara sarbidea izateko aukera desberdintasunak kritikatzan direnean. Batzuetan, langileen hautaketan pisu handiagoa du tribu bateko kide izateak irizpide objektiboek baino, hala nola titulazioa edo pertsonen gaitasun profesionala. Kexa hori iradokitzen da taldeko saioetan.

Pertsona bakoitzaren ezaugarriak albo batera utzita denentzat aukera berak bermatuko dituen gizarte berdinzale bat izateko errei-bindikazioa nabarmentzen da batez ere emakumeen diskurtsioan. Emakumeak kexu dira gizartearen eta familiaren aldetik presio handiagoa jasaten dutelako gizonek baino. Kulturak bizi-mugarri batzuk markatzen ditu emakumeen biografietan, eta mugarri horiek kontrol gehiago ekartzen dizkiete beren ideia, gorputz, estetika, langune





edo esku-hartze sozial eta politikoan. Ez dute askatasun gutxiago sentitzen, baizik eta askatasun eremuak eta jarraibideak balizez markatuta daude, eta eremu pribaturantz bideratzen dituzte eremu publikorantz baino (aldiz, familian askeagoak eta ahaldunduagoak sentitzen dira). Tradizioak, adin batetik aurrera, etxeko eremura, beste guztien gainetik eremu pribatutzat hartzen den horretara, bidaltzen ditu, eta etxea eta familia zaintzea izango da eremu horretan izango duten zeregin nagusia. Kultura nagusiaren eta emakumearen estatus edo rolen edozein arau-haustek, hala nola bizi-proiektuari lehenetasuna ematea familia-proiektuari eman ordez, gizartearen errieta dakar.

Emakumeen berdintasunaren alde egiteko, emakumeek beren etorkizunari buruz erabakitzeko ahalmena izan behar dute, norbanakoaren, familiaren eta gizartearen esparruan ahaldundu. Horretarako, edozein lan lortzeko aukera izatea, genero mugarik gabe, lehenetasunezko eskaera bat da emakumeentzat. Emakumeek, beren solasetan, lan batzuetan aritzeko tabuak daudela salatzen dute. Esaterako, taxiak gidatzeko. Beste lan batzuetan aritzeko ere, esaterako, lan kualifikatuak egiten Rabunin, oztopo gehiago izaten da emakumeentzat, kanpamenduen arteko distantziengatik eta joan-etorriak egiteko zailtasunengatik, garraio publikorik ez edukitzeagatik, edo amek dituzten beldurrengatik beren alabak familiaren etxetik kanpo joan edo bizi daitezen. Nolanahi ere, saharar kulturarekin hautsi gabe, ohituren bilakaeraren eta familia, gizarte, lan eta politikaren esparruko alderdi guztietan gizon-emakumeen arteko egiazko berdintasunean aurrera egitearen aldekoak dira emakumeak.

Gazteek hitz egiteko eta entzunak izateko duten gogoia agerian geratu da saio guztietan, eta hori nabaritzen da elkarrizketetan, baina baita talde bakoitzaren lana bukatzean, ez bakarrik agur hitzak, esker oneko hitzak, guztiz finak, ere esan dituztelako, ikerketak gazteei beren iritziak askatasunez adierazteko eman dien aukeragatik.

Deserrotze jasanezina

Saharar gizarteak jasaten dituen bizi baldintza gogorren oinarrizko faktorea da jasaten duen deserrotze egoera hirukoitza: Marokok lurraldea okupatzen diela, Aljeriako kanpamenduetan erbeste behartuan daudela, edota munduko hainbat herrialdetako diasporan. Independentzia eta Mendebaldeko Sahara itzultzea dira, ezinbestean, edozein konponbideren oinarri. Argudioak bat datoz ideia honetan: etsai komunaren aurka elkartuz, ez bestela, atera daiteke egungo egoeratik. Zehaztu behar da gazteentzat bereziki premiazkoa dela gatazkari konponbidea laster ematea. Bat datoz batasun sozialaren beharrari buruz, «barneko taldean» (saharar herrian) harremanak sendotzeko urgentziari buruz, «kanpoko taldearen» (etsaiaren) aurka egiteko, zeren taldetik banatzeak Marokoko gobernuaren estrategia mesedetzea dakar. Gazteek uste dute zenbait arazok, hala nola saharar kultura uzteak, lansari handiekiko eta lurralde okupatueta bizi baldintza hobekiko erakarmena izateak, pertsonaia batzuek baliabide ekonomikoak arrandiaz erakustek edo disidentziak inbaditzaile marokoarrek zatiketa sustatzeko planifikatu eta finantzatu duten estrategia bat osatzen dutela. Saharar herriaren batasuna izan da saharar erresistentziaren euskarria erbesteko urte luzeetan, eta etorkizunean ere hala izan behar du.

Berrogei urte baino gehiagoko gatazkak zirkunstantzia konplexu batzuetara eramane du saharar herria. Gazte horien ordezkariekin egindako topaketak erakusten du baldintzak gero eta zailagoak direla eta erresistentziarako gaitasuna gainbehera doala. Ingurunea aurkakoa da, eramangaitza, muturreko tenperaturak, ur urritasuna edo, kanpamendu batzuetan, bere gazitasun handia direla medio (bereziki nabarmena Aiungo kanpamenduetan), eta euriteek balio handiko ondasunen galera eta lasto-buztinezko etxe ugariaren suntsipena eragin dutelako. Lasto-buztinezko etxeei buruz, egungo haimeari buruz, eztabaida interesgarri bat daukagu. Hobeki zimendatu ahal direla esaten da, zementuz kareberritu, elektrizitatez hornitu, erosoagoak

egin. Halakoak egiten hasi dira. Etxe horiek beraien lurrera itzuli bitarteko bizileku gisa eraikitzeko behin-behinekotasun hori uzteak ez al dakar kokagune gisa irauteko etxe sendoak direla onartzea?² Eraikuntza moldearen aldaketa horrek ez al du esan nahi amore ematen dela, egoera behin-behinekoa dela uste izateari uzten zaiola, eta itzulera noiz gertatuko den ez dagoela saharar herriaren eskuetan? Ideia hori behin eta berriz agertzen da solasaldietan.

Basamortuko lurralde etsai horretako bizi baldintza gogorrei gehitu egin behar zaie elikagaien eta oinarrizko beste ondasun batzuen murrizketa, azken urteetako munduko krisi ekonomikoaren ondoriozkoa, saharar herriarekiko nazioarteko elkartasunari eragiten diona. Familiek arazoak dituzte oinarrizko dieta bat edukitzeko, batez ere diru-sarrerarik ez dutenek. Bistan denez, lanik eta errenta ekonomikorik ezak agerian uzten du etorkizun zalantzarri bat. Testuinguru horretan ulergarriagoak dira jarrera batzuen irmotasuna, elikagaien banaketa gehiago kontrolatzeko eskaerak, edo, are, laguntza guztiak herritarri iristen ote zaizkion dauden mesfidantzak. Horregatik erabateko gardentasuna eskatzen da laguntzetan eta banaketan. Alde horretatik, kontrol politikaren erakusgarri, aipatzen da gobernuz kanpoko erakundeek beren bidalketak eta banaketak kontrolatzen dituztela. Iritzi batzuen arabera, elikagaien eta oinarrizko ondasunen gabezia (azukrearena eta tearena ere bai) izango litzateke oro har zenbait lapurretaren zergatikoa, eta abere lapurreta batzuen zergatikoa bereziki.

Gazteenek uste dute norberaren patuan eragin handia duela jainkozko borondateak. Nagusiek, berriz, uste dute saharar herriak jasaten duen gatazka-egoeran duela jatorria desberdintasunak. Gatazka horrek bizitza sozial, politiko eta ekonomikoa baldintzatzen du. Lanik ezak emigratzera behartzen du, etorkizuneko edozein

.....
² Hemendik hartu dugu kontzeptua: Donald W. Winnicott, *Realidad y juego*, Bartzelona, Gedisa, 1994.

prozesu hausten duen frustrazio pertsonala sorrarazten du. Ahots batzuek diote eguneroko bizitza zail horrek okerrera egiten duela, norbera zein taldetakoa den, horren arabera. Tribu sistemaren egitura sozialaren banaketak eta tribu bakoitzaren botere maila desberdinek ez dute aukera-berdintasuna bermatzen. Inork ez du eskatzen tribu sistemaren, tradizioaren elementu baten, desagertzea, baina badago eskaera bat gobernuak sistema kontrolatu dezan, eta tribu bateko kide izatea ez dadin onuragarria izan inorentzat aukera berdintasuna hautsiz. Saharar gizarteak (gizarte demokratikoak, talde osoaren ustez) herritarren berdintasuna eta justizia bermatuko dituen gobernu bat behar du, alde batera utziz herritarren maila sozialak.

Tribuen batasuna funtsezkoa da, eta independentziaren aldeko borrokaren inguruan bildu behar du, halako eran non mugimenduen jardura kohesionatuko baitu gatazka gainditzeko. Gazteriaren parte batek uste du independentziaren aldeko borroka *stand by* fasean dagoela, eta gizartearen bultzada bat behar duela kausa bizirik edukitzeko, herri horren iraunkortasuna bermatuko baitu eta bizi baldintza gogor horietan bizitzeko bere gaitasuna.

Azalpen politikoago bat da, baina gutxiengoa diren ahots batzuek aipatzen dute Fronte Polisarioak³ uko egin diola bere ideologia sozialistari kontsumoko eredu kapitalista bere gain hartzeko. Eredu hori arin hedatu da kanpamenduetan telebistek zabaltzen duten eta sarean dabilen kontsumoko kultura globalaren bidez. Gizarte materialista horren hedapenak desberdintasun sozial eta ekonomikoak areagotzen ditu saharar populazioan. Orain arte klase-borrokaren antagonismo ideologiko marxista agertzen ez bada ere, badago diskurtso bat dualtasun sozial honen gainean eraikia: baliabideak dituztenak eta gabezia handiak dituztenak.

.....
³ Adinez nagusiago diren taldeetakoek nabarmentzen dute gazte batzuek ez dituztela ezagutzen Fronte Polisarioaren eta saharar gobernuaren eskuduntza eta ardura bereiziak.

Horregatik guztiagatik, gazteen artean berrindartze ideologikoaren beharra antzematen da. Egonkortasunik edo lanik ezaren ondorio den motibazio gabeziatik harago, kanpamenduetatik kanpo bidaiatzeko edo ikasteko aukerarik izan ez dutenak zaurgarriagoak dira, ideologizazio txikiagoa dutelako eta kontzientzia kritikorik ez dutelako. Horregatik esaten da gazteak motibatze beharra dagoela, prestakuntzaren eta kulturaren esparruan ahaleginak eginez, gero eta handiago den ezjakintasuna geldiarazteko. Hala belaunaldi ordezkapenaren gaiari heltzeak eta gazteen konpromisoa bultzatzeak duen garrantzia aipatzen da, batez ere kualifikazio handiagoa dutenen artean.

Kanpoko erakundeei dagokienez, denboran iraunkorra izango den esku-hartze eredu bat edukiz populazioa buruaskia izateko hezkuntza ematea eskatzen zaie (eredu galaktikoa)⁴. Eta eredu horrek lan estilo, egitura tekniko eta erantzukizun egitura jakin batzuk sortu behar omen ditu saharar populazioarengan, halako eran non, kanpoko erakundeak handik joaten direnean, haiek sortu dutena gelditu dadin, eta ez desagertu, egun gertatzen den bezala. «Oporrak bakean» programa kanpoko esku-hartze positibotzat hartzen da, gazteen osasun fisiko eta psikologikoaren baldintzak hobetzen dituelako eta, horretaz gainera, bizi-esperientzia bat ematen dielako kanpora bidaiatzen dutenei.

Bestalde, horrek populazioaren halako kokatze bat adierazten badu ere, argi elektrikoak, kalitatezko edateko urak, garraio publikoak

.....

⁴ Paloma López Ceballosek dio esku-hartze ereduak, orokorrean, gainbehera joaten direla kanpoko erakundeek alde egiten dutenean, eta, are, esku-hartzea hastean baino egoera okerragoetara itzultzen direla berritri. Ondorio horiek eragozteko, eredu iraunkor eta jasangarri bat proposatzen du. Eredu «galaktiko» esaten dio, eta honela definitzen du: «Garapen galaktikoaren eredu, harreman sareak katalizatzen direnean izaten da, eta komunitatea antolatzearen alde egiten denean, komunitateak berak sortu eta eusten dituen proiektuak eta ekimenak gauzatzearan alde. Komunitateak bere grabitazio indarra aurkitzen du, eta proposatutako edozein jomugarantz mugitzen jarrai dezake» (Paloma López de Ceballos, *Un método para la investigación participativa*, Madril, Editorial Popular, 1989).



(bereziki ikastetxe eta lantokietarako), osasun azpiegiturak, kanpamendu guztietako zerbitzu komunitarioak, baita urrunen daudena ere, horiek guztiak gazteen diskurtsoan agertzen diren eskaera orokorrak dira. Bojadorreko esperientzian ideia bat nabarmentzen da, alegia, elektrizitatea eta zerbitzu hobeak daudenez, horrek populazioaren hazkundera eragin duela (bereziki gazteena). Populazio hori kanpamenduetatik eta halaber lurralde okupatuetatik dator. Baina ondorio negatiboak ere baditu, hala nola trafikoa gehiago dagoela, eta kutsadura handiagoa, airean egoten den harea-hautsarengatik, eta gatazkak areagotzen direla; elikagaien gabeziak ere ekartzen ditu, populazio lekualdatuak ez baitauka eskubiderik elikagaien banaketarako, erroldatua ez dagoen arte, eta denbora igarotzen delako erroldak berritu arte. Halaber, zenbait kanpamendutan, esaterako Dajlanen, gero eta populazio gutxiago dago, eta horrek zerbitzuen galera dakar, bereziki osasunaren esparruan; trukean, gizarte-boluntarioritza areagotzean ari da wilayan.

Azkenean, taldeetan parte hartu dutenek gauza bat eskatu dute esplizituki, alegia, produktu aukera handiagoa izatea oinarritzko saskian, zeren nabarmen gutxiago baitira dauden elikagai freskoak, bereziki barazkiak. Elikagaien gabezia hori eragin nabarmena izaten ari da kanpamenduetako populazioaren osasunean.

Utzikeria hezkuntzan

Saharar gobernuaren politikako lehentasunezko estrategietako bat izan da analfabetismoaren aurka borrokatzea eta ahal den gizon-emakume gehienek prestakuntza jaso dezaten eta kualifikazio profesionaleko maila gorenetara irits daitezen sustatzea. Aipatuenez, politika horrek emaitza bikainak utzi ditu kualifikazio profesional handiagoari eta zenbait herrialdetan prestatutako unibertsitateko ikasleen tasa handiagotzeari dagokienez. Kanpamenduetako lan itxaropenik eza dela kausa, hobekien prestatutako pertsona batzuek emigratu egin dute beste herrialde batzuetan lan egiteko, eta horrek saharar diaspora areagotu eta hedatzen du kontinenteetan zehar.

Kanpamenduetan goi mailako ikasketak edukitzeak ez du esan nahi aldeko egoera denik lana aurkitzeko. Horren ondorioz, azken urteetan, gazteen populazioaren parte batek hezkuntza utzi du, beste diru-sarrera batzuk aurkitzeko familien ezegonkortasun ekonomikoari aurre egiteko. Halaber, adinez nagusienak direnek ikasteari uzten diote beren anai-arreba gazteagoek ikasteko aukera izan dezaten, familiek ezin baitute horrenbeste gastu batera ordaindu. Unibertsitateko tituludun gazteak, ongi prestatuak baina langabetuak, ez dira adibide akuilugarria gazteenek ikasten jarraitzeko, haiek berek esaten dutenez:

Unibertsitateko tituludunaren kasua daukagu; lizentziaduna eta masterduna da, eta denetarik ikasi du, denok ezagutzen dugu norbait, [...] eta orain astoarekin eta karrozarekin dabil; –izutzeko moduko– adibidea da guretzat.

Ikastetxeetan oinarrizko materiala falta da, eta ikasleek eraman behar dute. Familiak kexu dira irakasleek hori eskatzen dutelako: haurrek koadernoak eta idazteko materialak eraman ditzaten, gehienek material horiek erosteko dirurik ez badaukate ere. Ikasgeletan ordenagailurik eta Internetik ez dagoela, ezta liburutegi bat ere ikastetxe bakoitzean, kexa eta erreklamazio arruntak dira ikastetxeen beharrei dagokienez. Ikasleek badakite teknologiak erabiltzen ikastea garrantzitsua dela jakintzaren gizartean, pertsonai aukerak eskaintzen dizkietelako (saharar kausa zabaltzeko sareak duen garrantziaz ere mintzo dira). Hori dela-eta eskatzen dituzte baliabide eta gune gehiago Internetarako eta sare sozialetarako sarbidea izateko.

Garraio publikorik ez denez, eskolara oinez joatea neketsua da oso, jasanezina batzuetan eguzki galdagatik, jateko gutxi dago, ikastetxe batzuk oso urrun daude, eta bidean arriskuak izaten dira, lotu gabeko txakurrak, adibidez; halatan zaila da ikasleak ikastetxera garaiz iristea. Ikastetxe batzuetan, garaiz iristen ez badira, ikasleek egun oso bat galdu behar dute, eta itzulerako bide nekagarriari ekin behar diote berriro.

Bigarren kexa iturria da gero eta gehiago sumatzen dela irakasleengan nolabaiteko ezaxola, eta horrek motibazio eskasia sortzen duela ikasleengan. Bi faktorek eragiten dute jokabide hori: lehenik eta behin, lansari txikiak daudela, eta irakasleak beste lan batzuetan ere aritzen direla, enplegu-aniztasunean, esaterako adreiluak egiten, irakasle lana bera baino errentagarriagoa baita hori; bigarrenik, irakasle batzuk kualifikazio txikia dutela, zeina gauza bitxia baita, sahararren unibertsitateko prestakuntza maila altua dela kontuan hartzen badugu, Litekeena da irakasleen kualifikazioarekin zerikusirik ez duten kanpoko faktoreak egotea tartean irakasleak kontratatzerakoan. Esaterako, familia jakin batzuetakoa izatea. Beraz, jasotako iritzien arabera, lehentasuna eman beharko litzaioke ikasleak eta irakasleak motibatzeari, irakaskuntzaren kalitatea hobetzeko

eta ikastetxeetako araudia basamortuko bizitzaren berezitasunetara egokitzeko. Aipatu denez, ikastetxeetarako garraio publikoa jartzea nerabeen diskurtsoan behin eta berriz agertu den eskaera da.

Hezkuntza beharrei buruz galdetzen egin dugun ibilbidean proposatu diguten gauzetako bat izan da batxilergoa ezartzea wilaya bakoitzean, ikasleek Aljeriara joan behar izan ez izateko, han egitera. Ideia hori sortu da bigarren hezkuntzan eskola uzten dutenen kopuru gero eta handiagoa jaisteko. Fenomeno horren atzean dauden arrazoiak dira Aljeriako institutueta joateak familiarik bereiztea dakarrela, eta familiarik ez dutela baliabide ekonomikorik joan-etorriak eta egoaldiak ordaintzeko. Emakumeen esku-hartzeetan behin eta berriz aipatzen da hizkuntzen arloko prestakuntza indartzeko eskea, bai ikastetxeetan, bai gazteria osoari zuzendutako eskaintzan, zentro espezializatuak sortuz. Irakasleen hizkuntza maila areagotzea ideia osagarria litzateke aldi berean. Hizkuntzak jakiteak ematen dituen komunikazio baliabideez gainera, lanerako aukera ere ematen du berez.

Azkenik, ikastetxeetako jantokiei baliabide gehiago emateko eta elikagai osagarrien banaketa areagotzeko ideia proposatzen da; esaterako, ikastetxe batzuetan mantenu-galleta gutxi banatzen dira. Ikastetxeetan korana irakasteko ideia indar gutxiagorekin proposatzen da. Nolanahi ere, esan behar da ikasleek badakitela beren eskaera gehienak ez direla oso bideragarriak, saharar gobernuak egun dituen baliabide ekonomiko urriak direla-eta.

Bizitza pasatzen ikustea

Kanpamenduetako lan aukera mugatuak eta prestakuntza ezin dira bereizi saharar mundutik; bat etortzen diren eta txirikordatuta dauden bi analisi-lerro dira.

Langabezia orokortu hori eta lanean dabilzanek jasotzen dituzten lansari txikiak, baita administrazioarekin erlazioa duten lanpostuetan ere (irakaskuntza, osasuna edo indar armatuak), gazteen solasaldi- etako eztabaidagai nagusi bihurtzen dira. Lana da askoren jomuga, eta gizarte horretan transmititzen duten etsipena, neurri handi batean, lan gabezia horren ondorio da; izan ere, aisialdi amaigabeko egoerak sortzen ditu eta luzera begira jokabide disozialak eragin ditzake.

Saharar kultura tradizionalak seme zaharrenari ardura goiztiarrak ematen dizkio familia mantentzeko, are gehiago aita, ama edo biak falta direnean. Dela emigrazioagatik, dela heriotzagatik, edo dibortzioak daudelako, seme edo alaba zaharrena arduratzen da familia mantentzeaz. Seme zaharrenak bilatzen ditu bizirik irauteko baliabide ekonomikoak, eta alaba arduratzen da etxeko lanez (hori da ikasketak uzteko arrazoietako bat). Saharar familia tradizionalan ohikoa da alaba zaharrenak pixkanaka bere gain hartzea etxeko lanak, ama zeregin horietatik erabat askatu arte.

Lan eskasia izan arren, eta horrek familiei eragiten dizkien zailtasun ekonomikoak eta bizitzakoak gorabehera, gazteen parte esanguratsu batek ez du begi onez ikusten edozein diru-sarreretara jotzea egoera horri aurre egiteko. Legezkontrakotasuna bultzatzearekin etsaiak nahi eta akuilatzen duen porrot moralaren egoera akuilatu besterik ez omen da egiten. Legezko enplegu duina sortu behar omen da populazioarentzat; horretarako, sektore guztiek fronte komun bat eratu behar omen dute, eta lana sortzeak izan behar omen du gobernuaren lehen helburua.

Emakumeek ekimen edo erraztasun gehiago dituzte autoenpleguko proiektuak sortzeko –mikrokredituekin emeki aurrera egiten duten kooperatiba txikiak–, laguntzak gero eta zailagoak eta mugatuagoak badira ere. Emakumeek ere lan munduan hasi nahi dute, norberaren errealizazioa dakarrelako, eta beren esperientzia eskaini nahi dutelako saharar herriaren garapen eta askapenerako. Emakume gazteen



artean badago halako harrotasun bat, emakumeek jarrera hobea dutelako diru eta lan eskasiari aurre egitean. Oldartu egiten dira beren bizitzako xedea ezkontzea eta etxean lan egitea bakarrik dela pentsatzean. Beraiek esaten duten bezala: «Ez dugu bizitza igarotzen ikusi nahi gure haimako atetik begira».

Deigarria da jakitea gazteek eredu kooperatiboan ikusten dutela lan aukera bideragarri bat, baina, esaten dutenez, epe luzerako helburuak eta aurreko belaunaldietako emakumeekin identifikatzen dituzten pairamena eta egonarrria behar omen dira. Nolanahi ere, egun gazteek ez dituzte egonarrria eta sufritzeko gaitasuna bezalako dohainak. Berehalakotasuna eta unean unekoa dira beren diskurtsoaren bereizgarriak, gizarte globalean eskatzen dena, hain zuzen.

Enpleguaren zailtasun eta mugen aurrean, administrazio publikoan, armadan eta are parlamentuan ere lan egitea ez da erakargarria, lansari txikiengatik. Hori dela-eta, autoenpleguaren bidez lanpostuak sortzearen alde daude neurri handiago batean. Horrela ekintzailtza

ekimenak sortzen dira zenbait alorretan, hauetan adibidez: merkataritza, zerbitzuak, lantegiak, jatetxeak eta sukaldaritza txikia, garraio pribatua, jantzigintza... Talde dinamiketako batzuetan proposatzen da garraio publikoaren kooperatiba bat sortzea. Ongi antolatuz gero, kooperatiba horrek populazioaren mugikortasuna hobetzen lagunduko luke, eta kutsadura eta arriskuak saihesten, azken urteetan areagotu egin baitzaizkie, ibilgailu gero eta gehiago daudelako, haietako asko kontserbazio eta segurtasun egoera txarrean.

Administrazioan, laneko aukera-berdintasuna eskatzen da, aurretiaz aipatu dugun bezala. Badirudi urratsak egiten ari dela ideia horren inguruan, esaterako Hezkuntza Ministeriotik. Baina beharrezkoa da departamentu ofizialetako langileak hautatzeko prozesuetan gardentasuna indartuko duen erreforma bat egitea. Lanpostuetarako eta ardura postuetarako merezimendu eta kualifikazioen arabera kontratatzeak lehentasunezko estrategia izan behar du, eragin zuzena izango baitu saharar gizartearen etorkizunean.

Erakunde ofizialetako lanpostuei buruz iradokitzen den beste ideia interesgarri bat da ez daitezela behin betikoak izan, aldi baterakoak eta txandakakoak baizik, pertsona gehiagorentzat izan daitezen onuragarriak.

Lankidetzak agentziek zenbait langune eskaintzen dute, normalean aldi baterako. Arlo horietan lansaria orekatuagoa bada ere, pertsona gutxi dute enplegu horietarako sarbidea, eta lankidetzak noizean behingoa baino ez da.

Gazteentzat lanpostua funtsezkoa da, ez soilik satisfazio pertsonalerako eta bizi-proiektua errotzeko, baizik eta ezkontza bideratu eta familia berri bat sortzeko aurretiazko urratsa delako. Hori dela eta pertsona batzuek dituzten aurrezki txikiak negozio batean inbertitzen dituzte ezkontzeko gorde beharrean. Horrek esan nahi du, neurri batean, ezkontzeko adina atzeratu egiten dutela.

Maitasuna bigarren mailan

Ezkontza nabarmen ari da aldatzen zenbait gertaeren ondorioz: kanpamenduetako ezegonkortasun ekonomikoa, kulturartekotasunaren eragina saharar gizartean –gazteek beste herrialde batzuetara egindako bidaietatik ekarri duten fenomeno–, bikoteek harreman gehiago izaten dutela ezkondu baino lehen teknologia berriei esker, edo maitasun erromantikoaren eredu berria gero eta ezagunagoa dela.

Nolanahi ere, ezkontza tradizionala nagusi da oraindik ere, eta ezkontza horretan familien esku-hartzeak garrantzitsua izaten jarraitzen du. Gertatzen ari diren aldaketak gorabehera, onartzen da oraindik ere egiten direla ezkontza endogenoak tribu bakoitzeko kideen artean. Familietan tolerantzia handiagoa dago, eta askatasun gehiago gizartean ezkontidea aukeratzeko, baina, ezkontza hitzartuak behe-raka badoaz ere, familiak pisu handia du oraindik ere.

Teknologia berriekin eta sakelako telefonoekin bereziki, aukera gehiago daude ezkongaiak alde aurretik elkar ezagutzeko eta batzuek besteak askatasunez aukeratzeko. Aurrez elkartzeak eta ezkongai-harremanak, oraindik ere oso nabarmenak ez badira ere (ez beti), ohikoagoak dira teknologiari esker. Ezkontzari dagokionez, neska gazteenak ez datoz bat nagusi den ereduarekin; maitasun loturarik gabeko hitzarmenezko ezkontzaren aurka oldartzen dira. Halaber, taldeko bileretan esaten dute emakumeek bilakaera bat izaten dutela jarreran eredu tradizionalaren alde, ezkontzaren benetako garaira hurbiltzen diren heinean.

Maitasunean oinarritutako ezkontzaren ideia erromantikoa emakumeen imajinarioan dago, batzuetan maitasuna ezkondu ondoren ere sor daitekeela onartzen badute ere. Konfiantzan neska batzuek aitortzen dute helburu materialistak lortu nahi dituztela ezkontzaren bidez, hala nola segurtasuna, familiarekiko independentzia, egiteko

bat izateko aukera edo emakume ezkonduak gizartean duen aitopena, horrek maitasunaren arloan halako frustrazio bat eragiten badu ere.

Gizonen artean ezkontzaren eredu klasikoak indar handiagoa du. Familia, eta senargaiaren ama bereziki, ikuskatzaileak izaten dira oraindik ere. Mutil batzuek esaten duten horretan ere matxismo ukitu bat nabari da. Haientzat, funtsezkoena da «ulermena» egotea bikotekideen artean; maitasuna sentimendu ezkutu bihurtzen omen da gero. Halako erredukzionismo diskurtsibo bat egiten dute arlo pragmatikoan: gizonen eginkizuna da familia ekonomikoki mantentzea, eta emakumearena, berriz, familia mantentzea eta seme-alabak haztea.

Gizonezko gazte askok balioesten duten ideia da emakumeak, erakargarria izateaz gainera, erlijio-praktikatzailea izan behar duela, zeren hori baita, gizonek diotenaren arabera, familia-bizitzan arrakasta izatearen bermea. Dajlako mutilen taldekoek profetaren hitzen aipua ekartzen dute amaitzeko: «bilatu lasaitasuna emango dizun fede oneko emakumea. Fedean eta erlijioan daude etika eta moralak eta hezkuntza ona». Beren iritzia ideologikoen enfasian nabaritzen da erlijio orientabide hori eta prestakuntza koranikoa.

Gizonen mintzoan nabaritzen da, oso arinki bada ere, ohartzen direla zerbait aldatzen ari dela neska gazteenen pentsamoldean. Aldaketa horien jatorria familia barruan eta esparru sozialean eginkizun berdinzaleagoak eta beste estatus batzuk izateko nahian dago. Jabetzen dira horrek emakume izatearen kultura-ereduen bilakaera dakarrela eta ezkontzaren eta familiaren esparru mugatutik harago doala.

Praxiarekin guztiz bat ez badator ere, taldeen artean badago zeharkako adostasun bat bai familiek, bai saharar gobernuak bultzatutako ideia honen gainean: ezkontzaren gastuak eta ospakizun-egunak

mugatzea, familien etorkizuna oztopatzen duten zorpetzeak eragozteko. Eta bide batez ezkontza ospakizunetako gehiegizko kontsumo materialista geldiarazten saiatzeko. Komunikabideek eta sare sozialak bultzatzen duten kontsumo gizartearen ereduak egiten duen presio gogorrek gizarte akordio hori betetzea oztopatzen du.

Eskua gantzarik gabe. Berdintasunari buruzko solasa

Saharar kultura beste arabiar herrialde batzuekin alderatzen bada, egiaztatzen da saharar emakumeek jarduteko askatasun handiagoa dutela. Hori ondorioztatzen da hala behatzaile abantailatsuekin egindako elkarrizketetatik nola ikerketak jasotako taldeko elkarrizketetatik. Nolanahi ere, emakumeen bertsioak ñabardurak ditu, eta transmititzen duen ideia da gaur egun, askatasun handiagoa badago ere, gizon-emakumeen arteko berdintasunean urratsak egin behar direla.

Bai familiek, bai gizarte inguruneak gehiegi kontrolatzen dituztelako sentipena dute emakume gazteek. Gizonak kanpamenduetan azalpenik eman gabe noraezean ibil badaitezke ere, emakumeei zertan dabiltzan galdetzen zaie. Jabetzen dira gizartearen kontrolpean daudela emakume izateagatik (kontrol subliminala, oharkabean gertatzen dena, baina jokabidean eragina duena). Hori dela-eta saharar kulturak itxuraz ematen dien askatasun osoa eskatzen dute esparru publikoan.

Benetako berdintasunak esan nahi du emakumeek presentzia handiagoa izan behar dutela agertoki publikoan, eta, aldi berean, gizonak parte-hartze handiagoa izan behar dutela familiako zereginetan. Familia batzuetan beren kideen berdintasun handiago baterako aldaketa eta aitaren eredu autoritarioaren inboluzioa gertatzen ari da.

Neska-mutilen arteko harremanak direla-eta, neskek hitzordua dutenean adiskide batekin (zeinak ez baitu esan nahi nahitaez ezkongaiak direnik), gezurra esateko nolabaiteko joera dute, gurasoek neska gazteekin duten konfiantzarik ezaren ondorioz. Jarrera horren zergatikoa dira horrela elkartzea ez dagoela ongi ikusia saharar kulturari, eta mutil batekin elkartu direla onartzeak nolabait lotsarazi egiten dituela neskek. Familien mesfidantzaren aurrean neskek prebentziozko estrategia bat garatzen dute, haien hitzak erabiliz: «neska gazteek zurigarriren bat eduki behar dute beti».

Harremani buruz hitz egiteko mesfidantzagatik, ezkutuan hitz egiten dute telefonoz. Neskentzat normala da mutilekin telefonoz harremanak izatea eta hitz egitea, eta horrek ez du esan nahi maitasun konpromisorik dagoenik. Nolanahi ere, egia da familia mota desberdinak daudela, eta egoera horiekiko tolerantzia aldatzen ari da.

Adinez nagusiago diren neska gazteek, erlijioan eta saharar kulturari esperientzia gehiago baitute, uste dute aurrera joan behar dutela, emakumeek aurrera egin behar dutela esparru sozialean eta lan munduan, eta ez etxe barnean mugatuak egon. Horretaz gainera, neskek oso gaztetatik ordeztzen dute ama etxeko lanak egiten eta beren anai-arreba gazteagoz arduratzen, eta horrek halako ostrazismo batera baztertzen ditu beren amak. Horregatik, etxetik kanpoko lana presentzia eta aitorten publiko handiagoa lortzeko bitartekoa izan dadila eskatzen dute. Aukera horrek oihartzun handiagoa du kualifikazio handiena duten emakumeen artean, zeinek kasu askotan beste herrialde eta kultura batzuk ezagutu baitituzte. Hala, kulturartekotasuna faktore errektibo bat da saharar gizarteko esparru pribatu eta publikoan aldaketa soziala gertatzeko.

Generoen arteko berdintasunaren aldeko iritzia zabalduago dago atzerrian, bereziki Espainian eta Kuban, ikasi duten gazteen artean. Halaber, egia da erlijioa muga dela gizon-emakumeen arteko berdintasunari dagokionez, baina saharar gizartea estatu demokratikoaren



ereduan oinarrituta eraiki izanak aukera hobeak eskaintzen ditu berdintasunaren aldeko ildo horretan aurrera egiteko. Erronka da aurkitzea zein puntutan uzten dien erlijioak eta demokraziak gizonei eta emakumeei saharar gizarteko esparru guztietan berdintasun kotak garatzen.

Nerabe diren neskek kexu dira haiek jasan behar duten kontrol sozialaz. Arropa estuak janzteari buruz ari dira. Ikasten ari diren neskek esaten dute bizilekuetatik kanpo, eta ikastetxeetara distantzia handia dagoenez, *melfa* tradizionala aldi batez ez erabiltzeak erosoago ibiltzeko modua ematen diela. Aldi berean, bigarren hezkuntzako nesken janzkerari buruz dabilen legenda beltza aipatzen dute, baina gazteenek datu hori gezurtatzen dute. Beren errugabetasuna frogatzeko, saharar esaera zahar bat ekartzen dute hizpidera: «gantzaz zikindu gabeko eskua ez zaio hareari itsasten».

Osasuna eta emakumeen estereotipoak

Osasuna da saharar gazteen kezka nagusietako bat, batez ere emakumeen taldean. Atzerrian bizi izan direnek herrialde garatu-
etako osasun baldintzak kanpamenduetako egoerarekin konparatzen dituzte. Hortaz, normala da prebentzio parametroetatik eraikitako osasun laguntzaren ikuspegi bat izatea eta gaixotasunen eta osasuna-
ren ikuskatze jarraitu bat eskatzea. Horregatik eskatzen dute aldiz-
kako osasun azterketak egiteko ikastetxeetan haurtzarotik hasita.

Truke programan parte hartu dutenak kexu dira herrialde haietan asma, anemia, alergiak eta horrelako arazoak aurkitu zitzaizkiela, baina gero kanpamenduetan ezin dutela jarraitu herrialde horietan hasi zituzten tratamenduekin. Egiaztatu dugu, neurri handi batean, ez dituztela ezagutzen osasun adierazle oinarrizkoak, hala nola garaiera, pisua edo arteria-presioa. Proposatzen den konponbidea da daira bakoitzean gutxienez anbulatorio txiki bat egon dadila, bere biztanleen osasun adierazle oinarrizko jarraipena egingo duena. Halaber, interesgarria litzateke, taldeko dinamiketan askok azaldu duten ideien arabera, kontsultategi horietan beharrezkoak diren sendagaiak ematea tratamenduekin jarraitzeko. Wilaya batzuetan, esaterako Dajlan, espresuki esaten da osasun-laguntzak okerrera egin duela azken urteetan.

Basamortuko bizi-baldintzak, uraren egoera txarra eta elikagaien murrizketak eragin handia izaten ari dira populazio guztietan. Horrez gainera, baliabide ekonomikorik ez edukitzeak ez du uzten oinarrizko dieta osatzen merkatuan erosten diren haragi, barazki, lekale edo fruituekin. Gobernuak gehiago kontrolatu beharko lituzke dendetan saltzen diren produktu batzuen baldintza sanitarioak. Elektrizitate etenaldiak, tenperaturaren aldaketa produktuen kontserbazioan, produktu ontziratuaren oxidazioa, hozkailuen desizoztea, besteak beste, dendetan salgai dauden produktuen kalitateari eta kontsumitzaileen osasunari eragiten dioten zirkunstantziak dira.



Osasunarekin zerikusi duten gai guztiekin dute interesa bereziki emakumeek. Onartzen dute presio sozialak eta gorputzaren kulturak neska batzuk bultzatzen dituztela estetikarekin kezka handiagoa izatera beren osasunarekin baino. Gorputz handiko emakumearen eredu tradizionalaren aurrean, taldeetan esaten da, beste herrialde batzuetan egon direnen eraginez, eta bi milagarren urteko lehen hamarkadatik aurrera, emakume argalago eta azal zuriagoko baten eredia nagusitu dela. Taldeko dinamiketan aipatzen dute unibertsitateko ikasle diren mutilen neska argalagoak gustatzen zaizkiela. Deigarria da zeinen ongi ezagutzen dituzten neska gazteenek pisua handiagotzeko eta jaisteko edo larruazala koloregabetzeko sendagaien markak.

Gazteen droga kontsumoa, oso zabaldua ez badago ere, kezkabide da kanpamenduetan. Bere eragin zuzenagatik, kontsumoagatik eta bere ondorioengatik, baina baita dakarren arriskuagatik ere, drogak hartzen dituzten gazte horiek substantzia horien eraginpean ibilgai-luak gidatzen dituztenean. Alde horretatik, saharar gobernuak kanpamenduetan droga sar ez dadin, edo trafikatu ez dadin, egiten ari den ahaleginaren alde azaltzen dira. Nolanahi ere, gai hori saharar kultura

eta erlijioarentzat tabua bada ere, gazteak prest daude drogez mintzatzeko ikuspegi kritiko batetik.

Ikerketa honetan elkarrizketatutako psikologoek diote gazteen artean dauden buru gaixotasunen kasuak beren bizi-proiektuen frustrazioaren, lanik ezaren, gehiegizko aisialdiaren eta gatazkaren konponbidea luzatzearen sintoma direla. Aldi berean, aipatzen dute buru osasunaren gaiak tabu izaten jarraitzen duela saharar kulturaren, eta familian kasuak sortzen direnean, ezkutatu edo sendalarien bidez sendatzen saiatzen direla. Gazteekin egindako elkarrizketetan ia ez dituzte aipatu ere egiten nahasmendu psikologiko horiek, bakardadeak, etorkizuneko proiekturik ezak, ezkontzeko zailtasunak eta abarrek eragindako sufrimenduaz hitz egiten badute ere... baina ez dute buru gaixotasunaren kontzeptua azaltzen. Nahasmendu psikologikoa soilik alkohol eta/edo droga kontsumoarekin lotzen dute, edota neskek, arazo eta krisi pertsonalak dituztenean, pisua aldatzeko sendagaiak edo larruazala zuritzeko kremak (gehiegi) erabiltzearekin.

Aisiarik eta negoziarik gabe

Analisi honetako azken kapituluak aipamena egiten dio aisialdiaren erabilerari. Gai garrantzitsua da kanpamenduetako gazteen eguneroko bizitzan. Haien iritzian, estrategia garrantzitsuak planifikatuz jorratu beharreko lehentasunezko esparruetako bat da, aisialdia gaizki erabiltzeak eta lanik ezak saharar kulturaren eta legeria indardunaren aurkakoak diren jarduerak sortzen laguntzen baitu. Horregatik, gobernuari eskatzen zaio jarduerak antolatzeko eta ekipamendua lortzeko, gazteek beren aisialdia hobeki erabil dezaten.

Aisialdiko jarduerak proposatzen dira, prestakuntza ez arautuarekin zerikusia dutenak, izan ere, bizirauteko lan edo baliabideak sortzeko baliagarriak izango diren teknika eta praktikak ikastera bideratzen den prestakuntza baita. Neskek jostkintza lantegiak eskatzen

dituzte familiarentzako arropak egiteko edo kanpoko lana sortzeko: gazteentzako arropak egiteko lantegiak, kanpamenduetako dendetan daudenak baino diseinu berri eta modernoagoa duten melfak.

Internet beste herrialde batzuetan bizi diren familia eta adiskideekin harremanak edukitzeko bitarteko bat da, baina prestakuntza gune bat ere bai, bai eta saharar kausa mundu osoan zabaltzeko baliabide bat ere. Hori dela-eta gazteen artean oso zabaldua dagoen eskaeretakoa bat da wilaya guztietan sarerako konexioa edukitzea (zentro espezifikoak eta wifi sarea), gazteak libreki konekta daitezten. Sareari okerreko erabilera emateagatik dauden arriskuak ere identifikatzen dituzte. Arrisku horiek kultura eta erlijio printzipioen aurkakoak izan omen daitezke.

Neska batzuek telebista gehiegi ikusten dute, atzerriko telesail eta telenobelak ikusten dituzte, eta dauzkaten ardura pertsonal eta familia arduetatik urruntzen dituzte. Eguzkiaren energia besterik ez duten haimetan, telebista gehiegi ikusteak esan nahi du gauean ez dagoela energia nahikorik familiaren beharrei aurre egiteko, eta horrek gatazka ugari eragiten ditu familia barruan. Horregatik, gazte horientzat izan daitezkeen jardueretan pentsatu behar da. Halaber saharar telebistak gazteei zuzendutako programazio espezifiko bat edukitzea proposatzen da.

Azken blokea kirolari buruzkoa da. Taldeetan kirol instalazio eta jarduerak eskatzeko hitz egiten dute behin eta berriz, baina eskaera hori pixkanaka jaitsi egiten da adinean aurrera egin ahala. Taldeko solaskideek zenbat eta urte gutxiago izan, orduan eta gehiago eskatzen dituzte kirol esparruko jarduerak.

Mutilek, kirol instalazioez gainera, taldeak eskatzen dituzte futbolean jokatzeko, kirol hori baita interes handia pizten duena mutilen artean. Nesken artean, berriz, boleibola. Horrez gainera, asperdurari ihes egin nahian, gazteenetako gutxi batzuek izaten dituzten gatazka

eta borroken aurkako antidototzat hartzen dute kirol praktika. Bai mutilek, bai neskek दौरa eta wilayen arteko txapelketak eskatzen dituzte, baina badakite horretarako erakunde koordinatzaile bat egon beharko litzatekeela, eta talde edo klubaren egitura bat. Txapelketa horien entrenamenduen erritmo bat ezarriko lukete, beren aisialdia beteko lukete, batez ere eskola garaia ez denean.

Neska gazteak kexu dira dauzkaten kirol gune gutxi horien beti hartuta daudela futbolearen jokatzeko eta gizonen kirola egiteko. Hori dela-eta beren gune propioa eskatzen dute neskek, kirola egin ahal izateko. Eskara hori, logikoa denez, kirolaren eremutik harago doa, eta esparru publiko guztietan berdintasuneko guneak izatearen aldeko eskaera ere hartzen du.

Gazteak zifratan

Ezaugarri demografiko nagusiak

Aipatu denez, egindako prospekzio lanaren barruan, saharar gazteen unibertsoarentzat *ad hoc* diseinatu den inkesta-prozesu baten bidez egindako informazio bilketan oinarritzen da analisiaren parte bat. Galdetegia luzea denez, interes analitiko handiena duten ardatzetara mugatu behar izan da solas distributiboa argitalpen honetarako.



Aurrena, ikuspegi soziodemografikotik begira esanguratsuenak diren datuak aurkezten dira. Ikerketa kuantitatiboaren laginak duen batez besteko adina 22,4 urte da; elkarrizketatutako emakumeen kopurua bost puntu handiagoa da gizonena baino; gazteen % 11,7 ez da inoiz atera kanpamenduetatik; % 25,9 lan eta/edo jarduera sozialetan aritzen da.

« % 97,4k
badaki hassania/
arabiar hizkuntzan hitz
egiten. Gehien hitz egiten
den bigarren hizkuntza
espainiera da. % 56,2k
hitz egiten dute.
% 15,8k ingelesez hitz
egiten du. »

« Elkarrizketatuak
zertan aritzen diren:
% 52,8 ikasten ari da,
% 21 langabezian dago,
eta % 18,4 etxeko lanetan
aritzen da. % 6,9k bakarrik
dauka lan ordaindua. »

« Bigarren
hezkuntzako ikasketak % 48,3k
bukatu ditu, beste % 13,8k ez dauka
unibertsitateko ikasketarik, eta
% 1 analfabetoa da. »

« % 88,3k beste
herrialde batzuetara joan
izan da (Aljeria, Espainia eta
Mauritaniara). Bidaiatzeko arrazoi
nagusia hau izan da: ikasketak,
% 54,7, “oporrak bakea”
programa, % 51,5 eta lana
% 12,6. »

Ikasleak gehiengoa dira hogeita bost urte bete arte, eta emakumeen bi heren dira ikasleak (% 68,1); ikasleen kopuru hori heren batera jaisten da Dajla wilayan. Langabeen kopurua handiagoa da mutilen artean, emakume gehienak etxeko lanetan aritzen baitira. Lanean ari direnek jasotzen dituzten batez besteko errentak ez dira hileko ehun eurotara iristen.

Bizi-proiektua

Saharar familia gehienek lan aukerarik ez dutenez eta ezegonkortasun ekonomikoan daudenez, ezkontzeko adina atzeratu egin da, oro har, eta kasu gehienetan hogeita bost urte bete eta gero ezkontzen dira (26,4 urte da batez besteko adina gizonengan eta 21,5 emakumeengan). Senar-emazte gazteenak Bojadorreko wilayan daude; eta dibortzio indize handiena ere bai.

« % 82,5
ezkongabeak dira;
ezkonduak % 10,9
dira. »

« Gazteak
batez beste 23,4 urterekin
ezkontzen dira. »

« % 69,7k ez dute
ezkontzeko asmorik epe motzean,
baina % 13,4k badute ezkontzeko asmoa.
Batez beste 4 seme-alaba eduki nahi
lituzkete. »

« % 40,2rentzat ez
ezkontzeko arrazoi nagusia da
ikasten ari dela; % 39k erantzun du
gaztea delako, eta % 17,9k lanik
edo dirurik ez duelako. »

Senar-emazteek 2,1 seme-alaba dauzkate batez beste. Ezkontzea baino gehiago ikastea emakumeek lehenesten dute (% 54,2) eta Aiungo wila-yakoek (% 56,3). Ikasi dutenen ehunekoak Dajlan % 17,2ra arte jaisten da; gizonen kasuan nabarmen egiten du gora ez ezkontzeko joerak, lanik edo ohiko diru-sarrerarik ez edukitzeagatik familia mantentzeko (% 27,9).

Gazteek edo beren familiek baliabide ekonomiko eskasak dituzte, eta murriztu egin dira krisi ekonomikoarekin eta nazioarteko laguntza gutxiagotzearekin. Familien ia heren batek ez dauka inolako diru-sarrerarik.

Gazte gehienek ez daukate dirurik gastu pertsonaletarako (% 62,5). Talde horren heren batek 4,78 euro ditu hilean. 36,05 euro da batez-

bestekoa hileko diru kopuru bat daukatenen artean. Mutilek daukatena diru kopurua neskek daukatena halako hiru da. Ausserdeko wilayako gazteek dute diru gehien; aitzitik, Smaran dago batezbesteko txikiena dirutan.

« Familien % 26,8k ez dauka diru-sarrerarik. Familien % 24,6k diru-sarreraren bat duen kide bakarra dauka. »

« % 75,5ek dio bere familiak ez duela atzerriko ahaideen edo adiskideen ekarpen ekonomikorik jasotzen. Diru bidalketak % 19,1era iristen dira. »

« % 63,9 lasto-buztinezko etxeetan bizi dira, baina % 58,9k haima bat dauka. »

Familien baliabideak desberdinak dira, familiak zein wilayetan bizi diren. Bojadorren, kable bidezko elektrizitatea hedatuagoa dagoenez, mota guztietako ekipamenduen ehuneko handiagoa da: hozkailuak, garbigailuak edo aire girotua. Aldiz, Dajlan elektrizitatez hornitutako etxebizitza gutxiago daudenez, eta elektrizitate hori eguzki-elektrizitatea denez, etxetresna elektriko gutxien dituen kanpamendua da.

Erliijoaren bizipena

Erliijio musulmanak gero eta eragin handiagoa dauka gazteen artean azken urteetan. Izan ere, soilik % 6k dio erliijio gaiak ez zaizkiola axola. Gehienak interesa duten praktikatzaileak dira, eta gero eta maizago praktikatzen dute, batez ere emakumeak eta hamazazpi urtez behar-rakoak. Gazteen artean hamarretik zazpi diote azken urteetan erliijioan duten interesa areagotu egin dela.




« Erljioari
dagokionez % 92,3k musulman
praktikatzailatzat dauka bere
burua. »

« Erljioarekiko eta
hura praktikatzeko interesa
% 70,8 hazi da azken
urteetan. »

Egintza erlijiosoan sakontzeko aldagai anitzeko analisisia egin da, korrespondentzia sinplea deritzana¹, galdera honetatik abiatuta: «Erljioarekiko eta haren praktikarekiko duzun interesa azken urteetan...?» Erantzuteko aukerak hauek ziren: «gutxiagotu egin da», «lehengo bera izaten jarraitzen du» eta «handitu egin da». Gaiaren kontingentzia aztertu nahi zen aldagai independente hauei dagokionez: adina, sexua, lanbidea, egoera zibila, ikasketa maila eta politika-erekiko interesa.

.....
¹ Korrespondentzien analisisia, osagai nagusien analisiaren kasu berezia, teknika murriztaile-tzat har daiteke, zeinean bi kategoria multzoren arteko harremanak ezagutzea baita helburua. Osagai nagusien analisi faktoriala ez bezala, korrespondentzien analisisia «aldagaien arteko harremanek dituzten formak aztertzen» ahalegintzen da. Harremanen analisis geometriko bat egin nahi da. Hortaz garrantzi handikoa da analisisi honetarako irudikapen grafikoa, posizionamendu mapa edo atributu eta marken *mapping* izenez ezagutzen dena. Ikusi: http://www.tesintegra.net/helpgdw/correspondencias_simple.htm (01/03/2017)

1. Grafikoa. Ikertutako pertsonen interesa erlijioarekin eta bere praktikarekin



Iturria: Berezko lantzea.

Erljioarekiko interesa «handiagotu izanaren» posizioaren inguruan, erlazio hodei trinko bat dago. Bigarren hezkuntza/batxilergo/LHko ikasleak, politikarekiko interesa duten pertsonak, hamazazpi urtez beherakoak, eta ezkonduetako gazteak dira jarrera horretatik hurbilen dauden taldeak. Erljioarekiko interesak «lehenengo bera izaten jarraitzen duela» defendatzen duen aukera nabarmenagoa da pertsona aktiboengan eta langabetuengan, politikarekiko interes gutxi eta lehen hezkuntzako ikasketak dituzten hamazortzi eta hogeita bost urte bitarteko gizon ezkongabeengan. Azkenik, erljio egintzarekiko interesa «jaitsi egiten da» hogeita sei urtetik gorako unibertsitateko tituludun gazteengan eta disoziazio handiagotan: ikasketarik ez dutenen eta alargunen taldean.

Irudi pertsonala *versus* osasuna

Praktika osasungarri eta prebentzio politiken atalean interesa sortzeko modukoa da galdetutako pertsonen erdiak (% 50ek) ez dakiela zenbat neurtzen duen eta % 44k ez dakiela zenbat pisatzen duen. Datuak ematen dituztenen batez besteko garaiera 165,9 cm da, eta batez besteko pisua 59,2 kg. Gazteen heren batek pisu gutxi dauka (% 34,2). Gehienek (% 61) osasun fisiko eta psikologiko ona dutela diote.

« % 61ek uste du egun duen osasun egoera aski ona dela. »

« Gorputz masaren indizeari dagokionez: % 48,6k pisu egoera “normala” dauka, % 34,2k “pisu gutxi” dauka, eta % 15,6k “gehiagizko pisua” dauka. »

« % 72,4k ez du gaixotasunik eduki azken urteetan. »

« % 75,5ek esan du ez duela aldaketarik izan bere gogo-aldartean. Aldiz, % 16,8k baietz dio. »

Gaixotasun ohikoenak, azken urteetan patologiaren bat izan dutela diotenen % 21,1 entzat, urdailarekin eta giltzurrunekin lotutakoak dira, eta horien atzetik asma eta anemia daude. Osasun arazoei dagokionez, neskek % 26,8rekin, 10,6 puntu gehiago dituzte mutilek baino; urdailleko gaixotasunek eta anemiak gehiago eragiten diete. Buru osasunari dagokionez, gogo asalduren jatorria hau da: dolua, maitasuna, lanik eza eta saharar gatazka bera.

Tabako kontsumoak lagineko % 16,1i eragiten dio (% 29,6 mutilen artean); alkohol kontsumoa ozta iristen da % 1,8ra, eta % 2,2k dio beste droga batzuk hartu dituela. Gehienek (% 74,5) uste dute herrialde batzuen nahia dela saharar gazteek substantzia toxikoekin trafikatzeko edo haiek kontsumitzea. Azken bi urteetan legez kontrako ekintzak egin izanari buruz galdetu, eta % 6,1ek baietz dio, egin dituela.

Irudi pertsonala garrantzitsua da gazteentzat, bereziki neska gazteentzat; nesken % 95,2rentzat bere irudia oso garrantzitsua da.

« % 54k garrantzi handia ematen dio irudi pertsonalari. »

« Gazteen erdiak baino gehiagok, % 57,1ek, bere gorputzaren balorazio positiboa egiten du. »

« Nesken % 15,8k produktu espezifikoren bat erabili du larruazalaren kolorea aldatzeko. »

Sexualitatearen esparruan gazteen heren batek onartzen du ez duela sexu harremanik izaten (% 31,3). Oro har, sexualitatea bizitzeko duten modua positiboki balioesten dute. Populazio horren parte esanguratsu batek dio ez dagoela ongi informatuta gai horretan. Hori izan diteke arrazoa antisorgailuen erabilera oso zabaldua ez egotearena (% 13,2), adinean aurrera egin ahala gehiago erabiltzen badira ere.

« Gazteen % 49,6k ez dauka bere burua informatutzat sexualitate gaitan. »

« % 35ek uste du sexualitatea bizitzeko duen modua aski ona dela. % 18,6k txartzat jo du. »

« % 40,2k ez du antisorgailurik erabiltzen eta % 31,3k dio ez daukala sexu harremanik. »

« Osasun arloko gai hauei buruzko informazio eta/prestakuntza gehiago behar dutela uste dute: familia plangintza, % 49,1ek, dieta eta elikadura, % 41,7k, eta bizitza osasuntsua, % 39,4k. »

Adinean aurrera egin ahala sexualitateari buruzko informazio gehiago dutela sentitzen dute, eta sexualitatea bizitzeko duten moduarekin poztasun handiagoa dute. Nolanahi ere, bi sexuen artean desberdintasun esanguratsuak daude, neska gazteek informazio gutxiago dutela uste baitute, eta sexualitateaz duten bizipenarekin ez omen daude hain pozik. Emakumeen taldeak interes handia dauka pertsonen zainketa, bizitza osasuntsu, familia plangintza eta bereziki buru osasunari buruzko gaien gaineko informazioan eta prestakuntzan.

Aisialdia

Internetarako sarbidea oso garrantzitsua da kanpamenduetako gazteen-tzat kanpoaldearekin harreman izateko aukera ematen baitie; teknologietako prestakuntza ere balioesten dute. Gazteen % 30,5 egunero sartzen da sarean, sakelakoaren, tabletaren edo ziberraren bidez gehienetan.

« % 64k, Interneten sartzen denean, informazio edo dokumentazio bilaketak egiten ditu, % 35,3k foroak ikusten ditu, txatak (WhatsApp), edo mezularitza (Messenger). % 23,1ek telefono deiak egiten ditu sarean. »

« % 48,5ek dio Interneten eta teknologiaren eremuan behar hauek dituztela: Interneten eta teknologiaren eremuko prestakuntza. % 42,7k Interneteko sarbidea izateko gune fisikoak eskatzen ditu. »

Sarearen eguneroko erabilerak nabarmen gora egiten du adinean aurrera egin ahala. Adinez nagusiagoak direnek gehiago erabiltzen dute posta elektronikoa. Jokoak erlazioatuago daude adinez txikiagoak direnekin.

« Aisialdian gehien egiten diren jarduerak hauek dira: lagunekin egotea, irakurtzea, telebista ikustea, lana bilatzea eta kirola egitea. »

« Arazo eta behar sentituenak hauek dira: lanik eza eta langabezia, prestakuntza, ezkontza eta dibortzioa, eta Saharako gatazkaren konponbidea. »

Telebista ikustea eta lagunekin egotea ohikoagoa da hamazazpi urtez beherakoengan. Adinean aurrera egin ahala, areagotu egiten dira ardura sozial eta politikoak, eta denbora gehiago igarotzen da familiarekin.

Aisialdirako zaletasunak generoaren arabera: mutilek kirol gehiago egiten dute (% 35,3) eta kirol emanaldi gehiago ikusten dituzte (% 34,2), eta neskek gehiago irakurtzen dute (% 53,2).

Generoa eta nortasuna

Azterketak erakusten du iritziak ez datozela bat generoen arteko eskubide berdintasunari buruz. Emakumeek uste dute ez dagoela berdintasunik; aitzitik, gizon gehienek uste dute erabateko berdintasuna dagoela (% 59).

« Kanpamenduetako gazteek etxean gehien egiten duten lana hau da: tea prestatzea, garbiketa lanak, janaria prestatzea, eta haimaren eraikuntza eta mantentze-lanak. »

« Saharar gizon-emakumeen eskubide-berdintasunari buruzko iritziak aurkako jarrerak eragiten dituzte: % 47,8k baietz erantzun du, eta % 41,4k ezetz. »

Etxeko lanen ardura emakumeek daukate, baina mutil batzuk ere pixkanaka hasi dira etxeko lanen ardura beren gain hartzen, batez ere zenbait herrialdetan ikasi dutenek, hala nola Kuban edo Espainian. Adinean aurrera egin ahala, ardurak areagotu egiten dira zenbait lanetan, hala nola tearen zeremonia, haimaren eraikuntza eta mantentze-lanak edo pertsonen zaintza.



Azterketaren funtsezko galderetako bat saharar gazteen bizitzako lehentasunei buruzkoa da. Emandako erantzunetatik lehentasuneko hiru bloke sortzen dira:

1. **Identitarioa.** Sahararen askapenaren alde lan egitea (% 58,7).
2. **Egunerokoaren esparrua.** Ikastea eta prestatzea (% 46,4), lan bat bilatzea familiari laguntzeko (% 45,4), erlijioan sakontzea (% 42,3), bizi-baldintzak hobetzea (% 38,1), ezkontzea eta familia bat sortzea (% 25,5).
3. **Aldaketak bizimoduan.** Marokok okupaturako lurretik ateratzea (% 19,7), armadan izena ematea (% 18,5; eta mutilengan % 27,7), atzerrira bidaiatzea (% 14,3).


« % 48,1ek uste du azken urteetan gazteak ari direla aldatzen saharar kultura tradizionala. % 43,9k aurkako iritzia dauka. »

« Saharar herriaren askapenaren alde, aurrena, eta gero saharar gizartearen eta familiaren alde daude elkarrizketatuak prest inplikatzeko. »

« Politikari dagokionez, % 49,7k dio interes “dezente edo asko” duela, eta % 14,9k ez omen dauka interesik politikan. »

« Egungo jarrera hobekien laburbiltzen duen hitza hau da: “erresistentzia”, % 47,7. Jarraian: “elkartasuna eta konpromisoa”, % 22,7. »

2. Grafikoa: Ikertutako pertsonen interesa politikarekin



Iturria: Berezko lantzea.

Kanpamenduetan bizi diren gazteek interes handia dute gai politikoekin. Aipatzekoa da duten konpromiso soziala eta saharar herriaren askapenean esku hartzeko duten prestasuna. Nolanahi ere, egiazko parte-hartze politikoa nahiko mugatua da; soilik % 22,8 da elkarteren bateko kidea.


Saharar gazteriak politikarekiko duen interesa izan du aztergai korrespondentzia sinplearen bigarren analisiak. Bost tarteko jatorrizko eskala hiru kategoriatara murriztu da: «interes dezente», «zertxobait» eta «gutxi». Hauek izan dira aldagai independenteak kasu honetan: adina, sexua, lanbidea, ikasketa maila, politikan esku hartzeko prestasuna eta beste herrialde batzuetan bizi izana.

Politikarekin interes gehien dutenek profil hau dute: hemezortzi urtetik hogeita bost urtera bitarteko gazteak dira, etxeko lanetan aritzen dira, eta langabetuak eta ikasleak dira. Bigarren lerro bat osatzen dute lehen hezkuntzako ikasketak dauzkatena, gizona, aktiboak, eta beste herrialde batzuetan bizi izan direnak. Distantzia pixka batekin, baina koadrantean, politikan pertsonalki esku hartu nahi dutenak daude. Parte-hartze honetan zertxobait interes dutela diote politikan parte hartzeko inplikazioa eskalaren erdian dutenek, zeinek bigarren hezkuntzako ikasketak baitauzkate eta hogeita sei urtetik gorakoak baitira. Azken profila gai politikoekin interes gutxi dutenena da, eta profil horretan daude Batxilergoko / LHko ikasketak dauzkatena eta beste herrialde batzuetara joan ez direnak.

Beheko grafikoak erakutsi egiten du zer nolako konfiantza daukaten saharar gazteek beren eguneroko bizitzan eta Saharar gatazkaren konponbidean inplikatuak dauden erakundeekin (bat: batere konfiantzarik ez, eta bost: konfiantza handia).

Saharar armadarekin, Fronte Polisarioarekin, saharar gazteekin, Aljeriako Gobernuarekin eta Saharako Gobernuarekin dute konfiantza handiena. Onespentxiak duten erakundeak hauek dira: Marokoko Gobernuak, Nazio Batuak, MINURSO erakundea eta mugimendu islamiko ortodoxoak.

3. Grafikoa. Ikertutako pertsonen konfiantza erakundeekin (batez besteko balioak)



Iturria: Berezko lantzea.

Azkenik, saharar gobernuak jorratu beharreko lehentasunezko gaiak, gazteei dagozkien gaietan, hauek direla pentsatzen dute: enplegua eta lana % 74,6k; prestakuntza % 60,2k; osasun fisiko eta mentala % 30,7k; kultura % 30,1ek. Horretaz gainera, ehuneko txikiagoekin aipatzen dira: ikasteko eta ezkontzeko laguntzak, kirola, giza eskubideak eta Internet eta teknologiak.

Ondorio gisa

Ikerketak emandako datuen arabera, eta sintesi gisa, jarraian azaltzen dira Tindufeko errefuxiatuentzako kanpamenduetan bizi diren gazteen errealitate berezia ulertzeko funtsezko ideiak.

- Lana sortzea eta prestakuntza akademikoa eskaintzea elkarri lotuta daude, eta gazteek eskatzen dituzten lehentasun nagusiak dira. Lanerako sarbidearekin lansaria izateko eta etorkizun duin bat eraikitzeko aukerak elkartzen dira, bai eta familia bat sortzeko aukera ere. Horretaz gainera, lanik ez izatearen ondorio txarrak, hala nola zer egin ez jakitea, edo sortzen ari diren buru gaixotasunak arinduko lirateke.
- Bigarrenik, denbora zertan igaro pentsatzeko beharra sortzen zaie, ez baitute zereginik. Beraz, gazteentzat lehentasuna da aisiaren eta aisialdiaren kulturaren esku-hartzea, eta kirol jarduerak sustatzea ere bai. Horretaz gainera, aurrekoarekin oso lotuta, gazteentzako guneetarako eta Interneterako sarbide gehiago izateko eskaria dute.
- Beste eskari aipagarri batzuk dira kanpamenduetako zerbitzu medikoak hobetzea eta garatzea, eta osasunarekin (buru osasunarekin bereziki), edo sexualitatearekin eta gorputzaren kulturarekin lotutako informazioa eta prestakuntza.

- Saharar emakumeek gaur egungo gizartean eta beren herriaren historian zeregin nabarmena badute ere, egia da komunitatean eta politikaren arloan zeregin aktiboagoa eskatzen dutela. Neska gazteek sarbide handiagoa eskatzen dute erabakiguneetan egoteko, esparru guztietan lan egiteko, kirol praktika egiteko edo gidatzeko; hau da, genero arteko berdintasuna errealitate bihur dadila alderdi guztietan.
- Erljioak gazteen artean pizten duen gero eta interes handiagatik, goraka doan aldagaitzat hartu behar da, eta epe ertainean eragin eraldatzailea izan dezake saharar gizartean.
- Politikarekiko interesa eta beren herriarekiko konpromisoa oso handia da saharar gazteen artean. Nolanahi ere, militantzia politikoa eta esku-hartze soziopolitikoak beheraka egiten ari da, neurri handi batean, ez dagoelako eszena politikoan berrikuntzarik, ez eta gazteen aldeko apustu sendorik ere esparru publikoan; horregatik antolaketa sozial eta politikoan beste belaunaldi bati txanda ematea eskatzen da.
- Saharar herriaren askapenarekiko konpromisoa mantra bat bezala errepikatzen dute. Zeharka agertzen da edozein gai aztertzen denean, are gazteen egunerokotasunarekin lotutako gaietan ere. Gazteek beren herria askatu nahi dute; jarrera horren ondoan armak hartzeko aukera dago, baina aukera hori ez da desiragarriena. Lehenengo aukera jardun politikoaren bide baketsua da. Beraz, gazteen diskurtsotik eta inkesta prozesutik latentzia hau ondorioztatzen da: egungo gatazka ezkutua piztuko lukeen zioen bat balego, gazte asko prest leudeke beste gerra batean parte hartzeko.

Parte hartzeko lehentasunezko mailak

Azterketa amaitzeko, eskema honek, gazteei buruzko gaietan, ikerketak identifikatu dituen esku hartzeko lehentasunak jasotzen ditu; bai beren alderdi kualitatiboan, bai kuantitatiboan ere. Grafikoak erakunde hierarkizatu bat dauka hiru bloke handitan diseinatuta saharar gazteen unibertsoaren eskarien intentsitatearen arabera. Hemen aurkeztutako diagnostikoak eskaintzen duen jakintzatik eta gazteek beraiek lantegi parte-hartzaileetan aipatutako jarduteko jarraibideetatik abiatuta, kanpamenduetako saharar gazte errefuxiatuentzako etorkizuneko plan estrategiko bat diseinatzeko oinarriak jarri dira.

Gazteen arloan esku hartzeko hiru maila lehenetsien eskema



Gazteei dagokienez, lan egiteko aurreneko mailan dago enplegua sortzeko eta prestakuntza edukitzeko lehentasunezko gunea, bereziki prestakuntza profesionalaren esparruan. Gazte askok dute unibertsiteko prestakuntza, gehienak diasporako gazteak badira ere. Enplegu politiken garapenarekin batera etorri behar dira bizitza proiektuak: bereziki, ezkontza eta familia unitate berrien sorrera. Bigarren bilbe eszenikoa hiru gunetan konfiguratuta dago: aisialdiko ekintzak, berdintasun politiken garapena eta gazteen parte-hartze aktiboak aktibatzea konpromiso sozial eta politikoan. Azkenik, hirugarren maila osasunari dagokio, ingurune fisiko etsaiagatik eta egungo elikadura eskasagatik hainbeste hondatu baita. Bereziki, buru osasunaren esparruko esku-hartzea oso garrantzitsua da. Kulturak eta erlijioak ixten dute lehentasunezko mailen triangelu hori, gazteen bizitzen hobekuntzan esku hartzeko.

Kontakizun hauek gazteek kanpamentuetan egindako talde-dinamiketan azaldu dira, eta haien bizi- eta gogo-aldarteak islatzen eta laburtzen dute, bai eta ikerketa soziologiko honetan jarri duten esperantza ere:

«Ondorioa da saharar gazteak gero eta egoera okerragoan daudela itxaronaldi luzeagatik, drogen mafiengatik eta gure indarrak kostatzen ahala ahultzeko etsaiak darabilen estrategiarengatik. Beraz, egoera hobetzeko edo konponbide laster bat bilatzeko zerbait egiten ez bada, okerrera gertatuko den beldur gara. Nolanahi ere, hemen jarraitzen dugu gazteok ez dugu helburu nazionala ahantzi, eta geure independentziaren alde borrokatzen jarraituko dugu kostatzen ahala kostatzen».

«Espero dezagun ez dela ezerezean geratuko, eta ez direla Espainiara joango eta gutaz ahaztuko. Eta emaitza izan dadila saharar gazteentzat benetan erabilgarria izango den zer edo zer».